



Barbara Taylorrek eta Luis Amallobietak munduko marka ondu dute, arraun-ergometroan. ▶20

Tokikom 2017 Sarietako Azalik Onenaren saria (bigarrenez) eta Aipamen Berezia jaso zituen HIRUKAk, urriaren 27an. ▶9



hiruka

Uribe Kostako astekaria



109. zenbakia

2017ko
azaroaren 9tik
azaroaren 15era arte

Baiezkoak, %97

Hamarretik batek parte hartu du Berangon, Erandion, Getxon eta Leioan Gure Esku Dagoren herri-galdeketa, azaroaren 5ean. ▶22-23



HERRIZ HERRI ERANDIO

Topaketa feministak

Erandioko I. Topaketa Feminista antolatuko dute zapatuan, azaroaren 11n, Altzagako Azoka Zaharrean. Erandioko Sare Feministak azaldu duenez, helburua da «emakumeoi aukera ematea hainbat gairen gainean eztabaidatzeko, hausnartzeko eta gure artean saretzeko». Egun osoko egitarau zabala prestatu dute. ▶5

KULTURA SOPELA

Musikaldia, Sopelan

Udagoieneko musika-zikloaren barruan, zazpi emanaldi egingo dituzte, azaroaren 10etik 19ra arteko aste-akabuetan; horien arteko sei, Kurtzio kultur etxean; bestea, San Pedro elizan. ▶16



Eta niretzako zer?
Etxeko animaliei begirako
gehigarri berezia. ▶11-14

Martin Deunaren jaietan murgilduko da aste-akabuan Algortako Hezetasuna auzoa, hilaren 10etik 12ra. ▶4

Kultur Leioatik «kaleratu» dutela salatu du Artedramak; «egoera legez kanpoko» zela dio Gobernu-taldeak. ▶7

Urdulizko Umore Gauak zikloan parte hartuko dute Jon Plazaola eta Iñigo Salinero *Txaflas* aktoreek, zapatuan. ▶15



Joan dira 100 urte, eta UrriaTrans

Orain dela ehun urteko iraultza proletario hura ez zen nahikoa izan. Esan nahi dut, naiz eta urriko iraultza ekainean hasi zuten ehungintzako emakumeek, «doitasunezko» industrialdera urrian ailegatu zenez, horra hor azal-zuriko-gizon-oro-ahaltzuak jainkoa hil nahian. Eta bahetzea ez zen nahikoa zabala izan.

GaHeterosexualitatearen erregimen politiko honen kontrako mugimenduaren definitze prozesu honetan, iraganeko borroka ildoan akatsak argizatzen dira. Baita asmatutakoak ikusi ere, eta azken hauen artean, Queer mugimendua eta mugimendu Libertarioa bateratu nahi izan dutenen abilezia dago. Bi aldeak, heterogeneoak eta aldakorrek dira oso. Baina beste mugimendu batzuek ez bezala, hainbat logika kolonialista gure kalkuluetatik ateratzeko gaitasunak estrategiak eta taktika zorrotzagoak eraikitzeak aukera ematen dizkigute.

Parametro hauetan eta jendarteak dituen subjektibitate faltsuak direla eta, ghetotik ateratzeko eta modan dagoen indar metaketaren tranpa horretan murgiltzearen prozesua, suizidio bat izango litzateke hainbatentzat, hamaikagarren aldiz. Hortik kanpo, ezer gutxi dugu galtzeko disidente sexualok. Horregatik egin behar dugu aurrera, guregatik begiratzen ez dutenei erreparatu gabe, heterosexualitatea dinamitatzearen bidean. Mugimendu Libertarioak emantzipazio soziala eta nazionala lortze bidean, estatuaren txikizioak behar duen moduan.

Orain ehun urteko iraultza hark, ez zuen aintzat hartu ostrazismoan kondenaturik zeuden zapalduen kolektibo ugari. Gerora, Stalinismo makiabelikoan geratu zen dena. Baina gauza positiboak ere atera daitezke ikasgaiz beteriko kantera horretatik. Beharrak ez dira aldatu. ◀

Getxo

Aurrekontuak osatzeko ibilbidea hasi du Udalak



Herriarren iritzia batzeko postontziak jarri zituen Gobernu-taldeak udalerriko hainbat lekutan.

EH Bilduk ere 2018ko aurrekontuetarako proposamenak batzeko prozesu parte-hartzailea abiarazi du.

Getxoko herritarrek 583 proposamen aurkeztu dituzte 2018ko parte-hartze izaerako udal-aurrekontuetarako, iaz baino 93 gehiago. Orain, udal-zerbitzu teknikoek proposamenen baliozkotasuna eta bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertuko dituzte. Aurkeztutako artean, behar bezala betetako 332 galdetegi onartu dira: 226 paperean

eta 106 online eginda. 202 emakumezkoek bete dituzte eta 130 gizonzkoek. Kontsulta-prozesua irailaren 15etik urriaren 1era egin da.

EH Bilduren prozesua, martxan

Datorren urteko aurrekontuetarako proposamena egiteko prozesu parte-hartzaileari hasiera eman dio EH Bilduk aurten ere. Azaldu dutenez, azken urteotan egindako lan horri esker «hainbat eta hainbat» proposamen osatu dituzte: «auzokideen ekarpenak negoziatio-mahaira eramane genituen Gobernu-taldearekin horiek denak partekatuz». Aurten beste «aurrerapauso» bat emango dute prozesuari begira,

parte-hartzea erraztuko duten euskarri berriak martxan ipiniz. «Gure helburua auzokideengana gerturatzea izanik Getxoko elkartegintza osatzen duten talde kultural, sozial eta politikoei batzen ari gara». Horrez gainera, hainbat bilera egiten ari dira norbanakoak udal aurrekontua zer den, nola sortzen den eta EH Bilduren proposamenak zeintzuk diren azaltzeko asmoz. Ondoren, norbanako eta talde horiei denei euren iritzia emateko eskatzen ari da EH Bildu. Prozesu osoan jasotako ekarpen denak auzokideakaz partekatzeak eta proposamena bozkatzeko bilera irekia egingo dute azaroaren 23an, Algortako Villamonte kultur etxean, 19:00etan. ◀

Udal-langileen ordainsaria % 1 handitzea onartu dute

Getxoko Udaleko funtzionarioen ordainsariak % 1 handitzea onartu du Udalbatzak, aho batez. Udal-iturriek jakinarazi dutenez, horixe da legeak onartzen duen portzentajerik handiena. PP, GUK Getxo eta EH Bildu taldeak kritikoak izan dira Gobernu-taldeagaz, bakoitza bere arrazoiengatik, baina batez ere udal-lanpostuen balorazio-prozesuetan izandako atzerapenengatik. Hala ere, igoera horren alde bozkatu zuten denek, azkenengo krisialdi ekonomikoan udal-langileek «galdu zuten» eroste-ahalmena berreskuratzeko «eskubidea» dutelakoan. Gainera, kategoria altuagoko funtzioak behin-behinean esleitzen diren kasuetan, lanpostu-mailako osagarriaren aldea



Udalbatzak onartu du neurria, aho batez.

ordaintzea onartu zuten azkenengo osoko bilkuran.

Bestalde, Areetako El Chalet jattetxe zaharraren lursailaren xehetasun-azterlana egiteko baimena eman zuen Udalbatzak, bertan etxebizitzak eraikitze aldera. ◀

Arratoiak hiltzeko kanpaina abiarazi du egunotan Udalak

Urtero egiten den arratoiak hiltzeko kanpainetako bat abiarazi zuen Udalak joan den astelehenean, azaroaren 6an. Hamar eguneko tratamendu intentsiboa izango da, orokorra eta aldi berean udalerriko hainbat lekutan egingo dena. Hala, Areetako Santa Anan, Itzubaltzeta/Romo-Zugatzarre eta Negurin egin dituzte tratamenduak daborduko. Datozen egunetan, hilaren 17ra bitartean, udalerriko gainerako lekuetan eramango dute aurrera. Tratamendua guztiz eraginkorra izan dadin, herritarren laguntza eskatu du Udalak: kaleko animaliak ez elikatzea, zaborra 20:00etatik 22:00etara botatzea eta paperontziak erabiltzea. Hurrengo kanpainak martxoan eta ekainean egingo dituzte. ◀

Getxo

Etxebizitzaren arazoari aurre egin guran

Etxebizitza Jardunaldiak antolatu ditu EH Bilduk azaroaren 16, 17 eta 18rako; askotariko ereduak ikusaraziko dira horietan.

Etxebizitzaren problematikari aurre egiteko ereduak zein politikak ezagutzeko eta alternatibetan sakontzeko asmoz, Etxebizitza Jardunaldiak antolatu ditu Getxoko EH Bilduk datorren azaroaren 16rako, 17rako eta 18rako. Horretarako, beste leku batzuetan aurrera eramaten ari diren ereduak ezagutzeko Errenteriako, Gasteizko, Bilboko, Durangoko eta Bartzelonako hizlariak gonbidatu dituzte. Egun bakoitzeko gai bana jorratuko dute: 16an, Etxebizitza eta Gazteak; 17an, Etxebizitza ereduak; eta azkenik, 18an, Etxebizitza politikak.

Getxoko EH Bilduk nabarmendu du etxebizitza-plan bat izatea «ezinbestekoa» dela Getxon. Hala, elkarte zein norbanakoakaz izandako hartuemanari esker, hainbat neurri eta politika barnebiltzen dituen plana osatu du koalizio abertzaleak. Azaldu dutenez, plan horrek «indar berezia egin nahi du alokairu duin baten sustapenean. Horregatik neurri ezberdinak planteatzen ditu Getxon alokairuzko etxebizitzaren parke publikoa osatu dadin, etorkizun-



Etxe hutsen zentsua egiteko akordioa lortu zuen EH Bilduk Gobernu-taldeagaz, besteak beste.

nean eraikiko diren babeseko etxebizitza denak alokairuan esleitu daitezzen, urteak igaro arren erosteko aukerarik gabe». Modu berean, gaur egun Getxon dauden etxe-hutsen problematikari «aurre egiteko pizgarriak» proposatu ditu koalizio abertzaleak, baita kanona ere, horiek denak alokairuan merkaturatu daitezzen. «2016an gure akordioari esker lortu ziren diru-laguntzei dagokienez, horiek mantendu eta sakontzeko apustua egiten dugu, gazte, zein nagusien etxebizitza beharrei behar bezala heltzeko», adierazi dute. Aurrekoiez gainera, Getxon Etxebizitza kolaboratiboaren proiektua (*cohousing*) martxan ipintzeko proposamena

egin du EH Bilduk, «belaunaldi ezberdinen arteko bizikidetzaren aberasgarria bezain aproposa izan daitekeelako bizitzako fase ezberdinetan dauden gertoxotarrentzat».

Etxebizitzaren jabetza kolektiboa

Etxebizitza-zerbitzuen unibertsaltasuna bermatzen duen gastu sozialaren alde egiten du EH Bilduk. Hutsik dauden etxebizitzaren arazoari aurre egin behar zaiola azaldu dute, «parte-hartzea eta jabetza kolektiboaren inguruko eztabaidak abiaraziz». Etxebizitza lehen mailako interes publikoa izanda, horren kudeaketa «publikoa» bul-tzatu behar dela aldarrikatu dute. ◀

Transexualen eskubideak bermatu guran, neurriak hartu

Transexualak diren pertsona abonatuakaz Udaleko kirol-zerbitzuetan jarduteko orientabideak ematen dituen ebazpena jaso du Getxo Kirolak erakundeak. Horren helburua pertsona horiek kirola egiteari ez uztea eta euren eskubideak bermatzea da, diskriminazio ekintzak eragozteko. Hala, besteak beste, pertsonen euren genero-identitatearen arabera Getxo Kirolak hautatutako instalazioak erabiltzea bermatua izango dute, komunak eta aldagelak barne. Maiatzean onartutako ebazpenak orientazioak errazten ditu, transfobia edo bazterketa eragotziz. ◀

info +: www.hiruka.eus/getxo

Eguneko zentro berria zabalduko dute laster Getxon

Gizarte Inklusioaren eredu berri bati egokitze prozesua abiarazi du Bizkaiko Foru Aldundiak. Horri lotuta, eguneko hiru zentro berri irekitzen ari dira; horietako bat Getxoko Argitu izenekoa da, oraindino inplementazio-fasean dagoena. Horren helburua pertsonen eskaintzen zaien arreta indartzea da, ikuspegi komunitario batetik abiatuta, hau da, egoitzako dispositiboaren ahaleginen ardatza zena gainditzea. Getxoko zentro berri horregaz Uribe Kosta eskualdean dagoen beharrezkoan asetzea aurreikusten du Aldundiak. Arduradunen arabera, esku-hartze publikoak pertsonaren bizitzaren arlo denetan izan behar du eragina. ◀

ZINEBILBO

**BILBO
BILBAO**

BILBOKO DOKUMENTALEN ETA FILM LABURREN NAZIOARTEKO JAIALDIA
INTERNATIONAL FESTIVAL OF DOCUMENTARY AND SHORT FILM OF BILBAO
FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DOCUMENTAL Y CORTOMETRAJE DE BILBAO

AZA 10/17
NOV 2017

ANTOLATZAILEAK
ORGANIZADORES

BABESLEAK
PATROCINADORES

LAGUNTZAILEAK
COLABORADORES



Getxo



Dantzen erakustaldia egingo dute zapatuan San Nikolas ikastolan. MEMORIAS DE GETXO

Martin Deunaren jaiak, hastear

Azaroa helduta, Hezetasuna auzoa festa giroan murgilduko da hiru egunez; askotariko ekintzak egongo dira.

Azaroan bete-betean murgildu gara, eta ohiturari jarraituz, Martin Deunaren omenezko jaiak ospatuko dituzte Algortako Hezetasuna auzoko kideek. Hilaren 10etik 12ra bitarteko festak izango dira, berenberegiz; hala, hiru egun horietan hamai-ka aukera izango dituzte auzokoek zein inguruko lagunek. Gainera, aurton ere, egunotan dabilen euritik eta hotzetik babesteko karpa eta txosna bana ipiniko dituzte Iturgitxiko parkean. Bertan egingo dituzte festen gaueko ekintzak, kontzertuak eta zapatuko herri-bazkaria. Barikuan, hilaren 10ean, hasiko dira jaiak, 17:00etan jaurtiko duten txupinagaz. Jarraian, kalejira egingo dute auzoan kalerik kale. Ordubete geroago, pilota-partidak egongo dira San Nikolas ikastolako pilotalekuan; Zozoak abesbatzaren kantaldia, San Martin de Tours elizan.

Ekitaldi batzuk

Azaroak 10, barikua

17:00 Txupinaren jaurtiketa; ondoren, pailazoen ikuskizuna, Areneazpin.

18:00 Kalejira, Areneazpin.

18:00 Puzgarriak, Areneazpin.

19:00 San Nikolas ikastolako ikasleen pilota-partida, ikastolan. Ondoren, eskualdeko pilotarien partidak.

20:00 Zozoak abesbatza San Martín de Tours elizan.

20:30 Kontzertuak: Bochornoroma eta Urrats eromeria, Iturgitxiko karpan.

Azaroak 11, zapatua

10:30 Umeentzako marrazki-lehiaketa, Areneazpin.

11:00 Puzgarriak, tailerrak eta tiragoma eta igel-toka txapelketak, Areneazpin.

15:00 Herri-bazkaria, Iturgitxiko karpan.

17:00 Triki-poteoa.

18:00 Fandango eta arin-arin erakustaldia, San Nikolas ikastolan. Ondoren, XXVIII. Juanjo G. Mendibil aurrekulari txapelketa.

20:30 Kontzertuak: Hijos de tu iglesia eta Josetxu Piperrak, Iturgitxiko karpan.

Azaroak 12, domeka

10:00 XXXIX. lapikoko txapelketa.

11:00 XXXVI. artisautza-erakusketa, Iturgitxin.

19:00 Txokolate-jana, Areneazpin.

Alokairuko 140 BOEak eraikitzeke hitzarmena

Algortako Iturribarri inguruan alokairura bideratutako babese-ko 140 etxebizitza eraikitzeke hitzarmena sinatu dute Getxoko Udalak, Etxebizitza Sailak eta Visesa sozietate publikoak. Udalak jakinarazi duenez, hitzarmena aitzindaria da EAEn, Udalaren diru-ekarpenak alokairuko etxebizitza babestu gehiago eta alokairuko epe luzeagoa (gutxienez 25 urte) ahalbidetuko baititu. Arduradunek azaldu dutenez, «udalerrian batik bat gazteek etxebizitza egokia eskuratzeko dagoen arazoari» erantzun gura dio hitzarmenak. Udalak doan lagatako Iturribarriko lursailetan Visesak alokairurako 91 etxebizitza sozial eraikitzea baimenduko du, Alokabidek kudeatuko dituenak, eta alokairura bideratutako 49 BOE. Eragiketa horren guztizko zenbatekoa 18,3 milioi eurokoa da. Udalak, 3 milioi euroko lurzoruz gain,

info+: www.getxo.eus.

18.000 euroko diru-laguntza eman- go du etxebizitza sozial bakoitzeko eta 6.000 eurokoa BOE bakoitzagatik, besteak beste. Eraikuntza-proiektuak idaz- ten hasi da Visesa; hala, 2018ko biga- rren seihilekoan lizitazioak ateratzea aurreikusten da. Oostera, eraikuntza-la- nak 2019aren hasieran hasiko dira, eta 2021erako bizitzera sartu ahal izatea aurreikusi dute.

Parkingaren kontrako manifestazioa egingo dute, zapatu honetan

Getxoko Ibarbengoako aparkale- kua eraikitzeke obrak geldirik daude, behin-behinean. Tosu landa okupatu dute berriro auzokideek, hala ere, oraindino «partida ez dela buka- tu» argi dute ekintzaileek. Hori dela eta, proiektu horrekiko euren kontra- kotasuna azaleratzeko manifestazioa egingo dute zapatuan, hilaren 11n. Hi- tzordua 12:30ean ipini dute, Telletxe plazan. Gainera, parkingaren aurka- ko «askotariko arrazoiak» irudikatu eta herrian dauden gainerako borro- kak parkingagaz lotzen dituzten hain- bat zutabe egingo dituzte, hainbat le- kutatik irtengo direnak; horiek denak 12:00etan irtengo dira Telletxerantz.

Domekan izango dira Bizilagunak ekimeneko bazkariak

Domekan egingo dute Bizilagunak Dekimena, azaroaren 12an. Horre- tan, bertoko familia «autoktonoak» eta bertakotutako atzerriko familiak baz- kaltzeko elkartuko dira. Egizu Getxo Euskaldun elkarteak, Getxoko Udalak eta Getxoko Etorrinak Plataformak an- tolatuta, bazkarian parte hartuko duten familien etxeetan izango dira oturun- tzak, eta topaketa bakoitzean bertoko familia bat, atzeritik heldutako beste bat eta bazkaria antolatzen lagunduko duen dinamizatzaile bat elkartuko dira. Parte hartzeko edo dinamizatzaile iza- teko pertsona interesatuek izena eman beharko dute aldeztu aurretik.

harremanetarako: 644 277 155 / 644 595 191

San Nikolas IKASTOLA

San Nikolaren denok gara gu!!!

Hezkuntza integrala
Euskalduna
Plurala

Demokratikoa
Autonomia
Hezkuntza eta kudeaketa ereduak

Arene azpi, 15 • 48991 Algorta - Getxo
Tel: 944 305 478 • ikastola@sanikolas.com • www.sanikolas.eus

LUBERRI

OBRAK ETA ZERBITZUAK

- Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
- Inausketak
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibaiertza 28A behe, B12 Lokala (ERANDIO)
629 41 18 38 - 94 467 17 13
luberri@luberri.biz
www.luberri.biz

TAPU TABERNA

Santa Eugenia Kalea 13
ERROMA

GARAIZAR

BARRIKUNTZAK

Eraikuntza zerbitzu integralak

Illeta, 1. 48991 ALGORTA
94 430 52 43 - 607 952 977
regaraizar@gmail.com • www.garaizar.biz

Erandio

Topaketa feminista egingo dute zapatuan, emakumeak saretzeko

Erandioko Sare Feminista osatu zuten joan den udan Altzagako, Astrabuduko eta Erandiogoikoko hainbat emakumek, zapatuko bilgunea antolatzeke asmoz.



Hautzaindegi-zerbitzua egongo dela jakinarazi dute topaketaren antolatzaileek.

Erandioko I. Topaketa Feminista antolatuko dute zapatu honetan, azaroaren 11n, Altzagako Azoka Zaharrean. Erandioko Sare Feministak azaldu duenez, helburua da «emakumeoi aukera ematea hainbat gairen gainean eztabaidatzeko, hausnartzeko eta gure artean saretzeko. Denok askatasun osoz gure ideiak eta sentimenduak partekatzeke aukera izatea». Adierazi dutenez, topaketa hori egiteko ideia ez da berria: «emakumeok gure gizartean daukagun paperaren gainean berba egiteko aukera eskaini gura genuen, emakumeok elkarregaz topatzeko gune bat sortu». Hala, asmo horregaz batu zen Erandio osoko emakume-talde bat udan. Erandioko Sare Feminista sortu eta jaietan eraso matxisten berri eman zuten. ◀

Topaketa Feministaren egitaraua

Azaroak 11, zapatua

10:00 Ondoetorria, Altzagako Azoka Zaharrean.

10:30 Berbaldiak, zaintzaren eta norberak bere burua zaintzearen gainean; eta bakardadeari buruz.

11:45 Osoko bilera.

12:00 Atsedena.

12:30 Berbaldiak, aktibismo eta parte-hartze sozialaren gainean; eta sexualitate, gorputz eta harremanei buruz.

13:45 Osoko bilera.

14:00 Bazkaria.

16:00 Tailerrak: gorputz-mugimendua esperimentatzea eta xuxurlatutako poesia.

18:00 Amaierako ikuskizuna.

info+: erandiokosarefeminista@gmail.com

Argentinara jo dute, hiltzaileak zigor barik gera ez daitezen

Dozenaka erandioztarrek omen-du zuten Josu Murueta eta Anton Fernandez, Frankismoaren Polizia Armatuak 1969an hil zituen auzokideak. Astrabuduan egin zuten, joan den domekan, Muruetari Udalak ipinitako plazan. Frankismoaren Krimenen Aurrakako Kereilaren Euskal Plataformak antolatutako ekitaldian, Juan Mari Zulaikak irakurri zuen Maria Pilar Arenazak Maria Servini epaile argentinarrari bidalitako salaketa. Bertan, Muruetaren alargunak eskatu zion bere akusazioa Frankismoaren Krimenen Aurrakako Argentinako Kereilari batzeko. Zulaikak deitoratu zuen oraindino ez dagoela salaketarik Euskal Herrian aurkezterik. Alargunak eta Fernandez alabak lore-eskaintza egin zieten hildako senideei. ◀

zaz Maria Servini epaile argentinarrari bidalitako salaketa. Bertan, Muruetaren alargunak eskatu zion bere akusazioa Frankismoaren Krimenen Aurrakako Argentinako Kereilari batzeko. Zulaikak deitoratu zuen oraindino ez dagoela salaketarik Euskal Herrian aurkezterik. Alargunak eta Fernandez alabak lore-eskaintza egin zieten hildako senideei. ◀

Estolderia-tasa eta OHZ jaits ditzaten, 500 sinadura batuta

Ganemos Erandio udal-taldeak sinadura-bilketa antolatu du, Udal Gobernuari eskatzeko herritarren Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) eta estolderia-tasa jaits ditzaten. Ezkerreko plataformak Udalbatzari egin zizkion eskaera biak joan den irailaren 28an, baina ez zuen lortu zinegotzien gehiengoaren babesa. Horregatik, au-

zoz auzo dabilta sinadurak batzen, herritarren sostenguagaz gaia berriro plazaratzeko. Taldeak salatu du Erandio dela «OHZ kopururik handiena ordaitzen duen udalerria, inguruetako herriakaz alderatuta». Iraileko udalbileran aurrera atera zen Udal Gobernuaren proposamena, industria txikiei eta dendei OHZ %6an jaitea. ◀

Gerra Zibila pairatu zutenen lekukotasuna

Erandioko Tartanga Lan Heziketako Ikus-entzunezko ikasleak batzen dabilta euren auzokide nagusien lekukotasunak, dokumental baterako. Lan horretan, 1937ko bonbardaketak eta Gerra Zibila bizi izan zituzten auzokideek euren esperientziak eta sentipenak kontatuko dituzte. Ekimena Erandioko Udalak bultzatu du, udalerriko memoria historikoa galdu ez dadin, joan den apirilean hasi zituzten ekitaldien barruan. Izan ere, 1937ko apirilaren 22an hasi eta 26ra arteko erasoaren eraginez Legion Condor alemaniarrek 29 pertsona hil eta 37 zauritu zituen.

Beste bonbardaketa batzuk egin zituzten urte bereko urtarrila eta ekainera arte. Denera, ehun biktima izan ziren hildako eta zaurituen artean.

Udalak apirilean bertan bidali zien gutun bana adinagatik ekimenean parte har zezaketen 74 pertsoneri. Gra-



Junkers Ju 87 abioiak erabili zituzten Erandion.

bazioak auzokide horiek gura duten lekuan egingo dituzte ikasleek, martitzen eta eguen goizetan.

Gordetako memoria astintzera deitu zuen Egokiñe Angulo zinegotziak, apirilean: «instituzioetako zein gizarteko konpromisoa ez da bakarrik urtean behin gogoraraztearen kontua, baizik eta gure artean bizi diren nagusien informazioa biltzea, historian mantentzeko eta gure identitatearen transmisioa ziurtatzeko». ◀

**SARTU GURE
WEB BERRIAN**
www.cianoplan.es
902 103 763

»»» kartelgintza



»»» inprimategia



»»» kopisteria



Leioa



Gaur egun, 700 ikasle dauzka ikastolak. 2021ean Ibilaldia antolatuko dute. © BETIKO IKASTOLA.

Betiko Ikastolak eraikin berria dauka

Bi milioi eta erdi euro inbertitu dituzte DBHko eraikin berria eta hainbat lan egiteko; inaugurazioa azaroaren 11n izango da.

Handitzen eta handitzen doa Betiko Ikastola: lerro bakarretik lerro bi izatera pasa da urte gutxian. «Eraikina zahar gelditua zen; ikasleak ez ziren sartzen. Hala, erabakiak hartu behar genituen: ikastola berri behar genuen, bai ala bai», adierazi du hezkuntza-zentro horretako presidentea den Koldo Tellituk. Iazko udan, Haur Hezkuntzako eraikinaren erreforma egin zuten. Zapatu honetan, azaroaren 11n, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eraikin berria inauguratzeko ekitaldia egingo dute, 11:00etatik aurrera; urtebete behar izan dute hori altxatzeko. Horrez gainera, ikastolako guneak euren eredu pedagogikora egokitzeko egin dituzten lanak

aditzera emango dituzte. Denera, bi milioi eta erdi euroko inbertsioa egin du Betiko Ikastolak: «mailegu bidez finantzatu dugu eta gurasoen ekarpen bereziari esker aurre egingo diogu, inbertsiotako diru-laguntzarako dekretua ahaztu barik eta 2021ean antolatuko dugun Ibilaldia emango digun bultzada ere kontutan hartuta», azaldu du Tellituk.

Izen ere, administrazioa kokatzeko beste eraikin bat ere altxatu dute; «horrela, bulegoak kokatuta zeuden lekua aprobetxatu eta jantokia handitu dugu, egunero gurean bazkaltzen duten 750 erabiltzaile baino gehiagok eroso bazkal dezaten gure jantoki-zerbitzu autogestionatuan», zehaztu du ikastolako presidentek. Bestalde, HHko eraikinean igogailu berria eta larrialdietarako eskailera ipini dituzte. Eraikin zaharretan ere zenbait obra egin dituzte, patioak egokitu eta ikastolako sarrerak zein autobus-zerbitzua berrantolatzeaz batera. ◀

Kale egin du Vicrila saltzeko saiakerak

Likidazio-fasea martxan ipintzeko plana aurkeztu du administratzaileak; 280 lagun en lanpostua arriskuan egon daiteke.

Lamiakoko Vicrila beirategia ez dago sasoirik onenean: Gestiber inbertsio-funtsak erosi zuen lantegia, hartzekodunen konkurtsoan zegoela; baina, ez ditu ipini adostutako 8 milioi euroak. Ondorioz, administratzaileak likidazio-fasea aktibatzeke plana aurkeztu zion duela pare bat aste epaileari. Enpresa zatika saltzea, ixtea edo inbertitzaile fidagarri bat agertzea izan daiteke prozesu honen amaiera. Cambium-Glasifikai inbertitzailea izateko konkurtsoan izan zen, baina galdu egin zuen, eta bali-

teke oraindino interesa izatea. Vicrila-ko langileen ordezkaria den Iñaki Icazak zehaztu duenez, «egoera larria da; baina, produkzioa mantendu ahal izatea aurreikusten dugu. Halaber, bezeroek enpresagaz duten konpromisoari eutsiko diotelakoan gaude».

Lantegia saltzeko saiakera bik kale egin ostean, beharginek esperantza dute, eta egoera laster konponduko delakoan daude. «Lan-baldintzak kaskarrak diren arren, langile gehienek onartu zuten produktibitatea bermatzeko neurri zehatzak hartzea», esan du Icazak. Beharginek soldata jaistea eta ordu gehiago lan egitea onartu zuten, enpresa salbatzen laguntzeko, duela urtebete. Administratzaileak datozen asteetan erabaki beharko du langile kopurua murriztu edo ez; 280 lagun en lan egiten dute bertan. ◀

Iazko sexu-erasoaren ustezko egilea atxilotu dute, Salamancan

Azaroaren 1eko goizaldean urte bat bete zen 14 urteko emakume batek sexu-erasoa jasan zuela, Leioan. Bada, ustezko erasotzailea aurreko egunetan atxilotu zuten, Salamancan. Bilatzeko eta atxilotua izateko agindua zeukan; eta aipatutako Espainiako hiriari atzeman eta behin-behinean espetxeratu egin zuten, bertoko polizia bategaz liskarra izan ostean. Hainbat iturrik diotenez, datozen hilabeteetan epaituko dute Bizkaiko Lurralde Auzitegian. Ustezko erasotzailea, 18 urteko mutila, Getxoko epaitegiaren esku lotu zen duela urtebete, nahiz eta karguak azke geratu zen epailearen aurretik pasa eta gero. Sexu-erasoa gertatu zenetik non zegoen ez zekiten. ◀

Avanzadako tunelak gauez itxita egongo dira, hiru hilabetez

Azaroaren 6an, Avanzadako errepideko tunelak konpontzeko lanak abiarazi zituen Bizkaiko Foru Aldundiak; urriaren 31ra arte, 56 egunez, hezetan-arazoak, ur-filtrazioak eta egituraren agertutako pitzadurak konpontzen ibiliko dira beharginak. Puntako orduetan ibilgailuen joan-etorriaren eraginik ez izateko, gauez baino ez dituzte konponketa-lanak egingo. Hartara, Avanzadako errepideko tunelak 22:00etatik 06:00etara arte egongo dira itxita. BI-637 errepidea gauez erabiltzen duten gidariei dagokienez, saihesbideak prestatu ditu Aldundiak, Leioako Udalagaz elkarlanean. Lanok 550.000 euroko aurrekontua daukate, foru-iturrien arabera. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



TXIBERRI EDANTOKIA

FRONTOI PARTIKULARRA



AITA GOTZON 4, URDULIZ
94 676 07 15

Egin zaitez hirukalagun!

Hamaika onura trukean: sarrerak, diskoak, liburuak, bazkariak...



Ipini gugaz harremanetan: 944 911 337
administrazioa@hiruka.eus

Leioa

Artedrama ez da daborduko Kultur Leioako antzerki-taldea



Artedrama arte eszenikoen plataforma bost urtez izan da Kultur Leioako antzerki-talde egoiliarra.

«Erabaki politiko batengatik» Kultur Leioatik «kanporatu» dituztela salatu du Artedramak. Ostera, enpresa-izaera duenez, daborduko lokalik ezin diola utzi adierazi du Udal Gobernuak. Alderdi politiko gehienek bueltan gura dute antzerki-taldea.

Artedrama arte eszenikoen plataformako kideek «penaz eta ezintasunez» esan diete agur leioaztarrei; izan ere, EAJren eta PSE-EEren «Udal Gobernuaren erabaki politiko batengatik» Kultur Leioako antzerki-talde egoiliarra izateari utzi behar izan diotela salatu du antzerki-taldeak, gutun bidez. Artedramak urriaren hasieran utzi zuen Kultur Leioa; 2012an heldu ziren bertara. Hala ere, orain dela 5-6 hilabete izan zuen Udalaren erabakiaren berri; baina, orain arte ez du jendaurrean jakinarazi.

Esnatu Leioaren zinegotzia den José Ignacio Vicentek azaldu duenez, Estibaliz Bilbao kultur zinegotziak urriaren 25ean azaldu zien egoera oposizio-ko alderdi politikoei. Jazotakoa jakin ostean, horren gainean galdetu zioten udal-arduradunari, Kultura Batzordearen egun horretako bileran. Bilbaok erantzun zenez, Leioara heldu zenean, konpainia «amateurra» zen Artedrama; «gaur egun, ordea, talde profesionala da, eta ez dagokio udal-lokalik edo diru-laguntzarik», gaineratu zuen agintariak. Horrelako laguntzak irabazi-asmo bako elkartei baino ez dizkiete ematen. Gainera, helbide fiskala Kultur Leioan ei zeukan arte eszenikoen pla-

taformak: «eraikin publiko bat ezin da enpresa baten helbide fiskala izan», aipatu zuen kultur zinegotziak.

Modu berean, hartutako erabakia «teknikariak igarritako aholkuetan oinarrituta» dagoela adierazi du alkatordea den Iban Rodríguez. «Beste erakunde zein administrazioekin harremanetan egon ostean, inork ez zuen Artedramak Leioan zeukan egoera onartzen, legeari dagokionez. Hori horrela izanda, eta denbora kontra gnuela kontuan izanda, erabakia hartzeko beharrean sentitu gara», azaldu du EAJren kideak. Hala ere, Artedramak Leioan egindako lana goraiatu du Rodríguez: «ez daukagu inongo zalantzarik; ikaragarria izan da, eta, bihotzez, eskertzekoa», esan du. Arte eszenikoen plataformako kideen ikuspegia beste bat da: «zoritxarrez, azken agintaldian ez dugu sentitu bultzada politiko nahikoa, hutsune legalengatik, baina, bereziki, borondate faltagatik», deitoratu dute Artedramaren kideek. Diotenez, «ez dugu jaso ase gaituen argumenturik», Udalaren jokatubidea azaltzeko.

Bitartean, Kultur Arloak hartutako erabakia babestu du PSE-EEren zinegotzia den Juan Carlos Martínez;

sozialistek eta jeltzaleek osatzen dute Leioako Udal Gobernuak. Hala ere, Leioako Euskal Sozialistak taldeak «babes osoa» adierazi dio Artedramari, «euskarazko antzerkigintzan egiten duten lanagatik». Izan ere, Martínezek berak zera azaldu du: «Espero dugu arazoa konpondu ahal izatea, leioaztarrekin eta leioaztarrentzat lanean jarrai dezaten».

Esnatu Leioako José Ignacio Vicenteren arabera, «ematen du aldeetako batek edo biek berba egiteko borondate eskasa agertu dutela, eta ezin izan dutela arazoa konpondu». Kontuak horrela, «elkarriketari berririo ekiteko» eskatu die Udalarari eta Artedramari, «konponbide bat aurki dezaten»; izan ere, Vicenteren berbetan, «horrelako kultur elkarteek kalitate-ukitua ematen diote udalerriri».

Azkenik, EH Bilduren bozeramailea den Aritz Tellituren arabera, «esku artean ditugun datuei begiraturik, uste dugu aukerak zeudela Artedrama arte eszenikoen plataformak Leioan jarrai zezan». Are gehiago, antzerki-taldea «aukerak aztertu barik kanporatzea» leporatu dio Udal Gobernuari. Agintari leioaztarrek «azalpen gutxi eman izana» kritikatu du ezkertiarrek. ◀

Iritziak



“

IBAN RODRÍGUEZ
EAJ

Udal Gobernuak hartutako erabakia teknikariak emandako aholkuetan oinarrituta dago. Izatez, egoerak ez zuen teknikoki eta juridikoki gaur egun indarrean dagoen legediaz bat egiten. Beste erakunde publikoek ez zuten Artedramak Leioan zeukan egoera legezkotzat jotzen.



“

JUAN CARLOS MARTÍNEZ
PSE-EE

Ulertzen dugu arauak berberak direla elkarte denentzat. Alde horretatik, eraikin publiko bat ezin da sozietate baten helbide fiskala izan. Hala ere, babes osoa adierazi nahi diogu elkarte honi, eta espero dugu arazoa konpontzea, leioaztarrekin eta leioaztarrentzat lanean jarrai dezan.



“

JOSÉ IGNACIO VICENTE
ESNATU LEIOA

Ematen du aldeetako batek edo biek elkarrekin hitz egiteko borondate eskasa agertu dutela, eta ezin izan dutela arazoa konpondu. Kontuak horrela, elkarriketari berririo ekiteko eskatzen diegu Udalarari eta Artedramari. Horrelako kultur elkarteek kalitate-ukitua ematen diote Leioari.



“

ARITZ TELLITU
EH BILDU

Gertatutakoa hobeto aztertu ahal izateko lanean gabilta; baina, eskuartearen dauzkagun datuei erreparaturik, uste dugu aukerak bazeudela Artedramak Leioan jarrai zezan. Ematen du, aukera ezberdinak kontuan hartu barik kanporatu duela Udal Gobernuak antzerki-taldea.

Sopela

Barrakoiak, Zipiriñen

Azpiegitura horrek ezinegona eragin du ikasleen gurasoen artean; Udalak konponbidea bilatuko duela esan du.

Gaur egun Zipiriñe eskola publikoak duen leku faltari aurre egin guran, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak barrakoi bat instalatu zuen joan den urriaren akabuan eskolako patioan. Izan ere, arduradunek azaldu dutenez, datozen urteetan eskola publiko horretan ikasleentzako leku nahikorik ez egotea aurreikusi dute; hala ere, hartutako neurri horrek ezinegona sortu du ikasleen gurasoen artean. Ostera, Gontzal Hermosilla Sopelako alkateak azaldu duenez, «Hezkuntza arduradunarekin izan nuen bileran esan zidan Guraso Elkartearekin batzar bat izan



Aurrefabrikatutako azpiegitura eskolako patioan ipini dute.

zuela, eta, behin-behinean, barrakoiak ipintzearekin ados egon zirela, baina Zipiriñerako behin betiko konponbidea bilatu behar dela. Baita hormigoizko zolata egitea guri dagokigula ere». Hala ere, Gobernu-taldeak arazo horri konponbide iraunkorra emateko eskatuko

duela iragarri zuen alkateak. Horrez gainera, Zipiriñe eskolari ematen zaion diru-laguntza 34.000 euroan handitzea proposatu du, 64.000 euroko laguntza emateko denera. Neurri horregaz, eskola publikoa hobetzeko neurriak hartu gura dituzte. ◀

Gorliz

Udan, autoa aparkatzeagatik ordaintzea, beharrezkoa

Ekainetik irailera udalerrian TAO sistema martxan ipintzea erabaki du Gorlizko Udalbatzak. Neurri horregaz, uda sasoiari jasaten duten ibilgailuen «saturazioari» aurre egin gura diete udal-agintariek. Jakinarazi dutenez, beste herrietatik etorritako bisitariak bakarrik ordaindu beharko dute autoa Gorlizan aparkatzeagatik; udalerrian erroldatuta egon ez arren, zirkulazioko udal-zerga berton ordaintzen dutenek ere ez dute TAOa ordaindu beharrik izango. Udalerrian pisua duten udatiarrei dagokienez, OHZ ordainagiria aurkezten dutenek urtez urteko abonatu bi eskuratzeko eskubidea



izango dute gehienez; bakarra eskatzen dutenen kasuan, 30 euro; bi esku-ratuz gero, 50 euro. Gainerako erabiltzaileek Udalak ezarritako gunetan aparkatzeagatik ordaindu beharko dute, 09:00etatik 21:00etara. ◀

Elkarteentzako laguntzak eskatzeko epea zabaldu dute

Udal-interesa duten eremu eta diziplinetan lan egiten duten elkar-teek eta erakundeek diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte egunotan. Udalak jakinarazi duenez, horien jardueretan laguntzeko helburua duten diru-partidak aurreikusita dituzte udal-aurrekontuek. Hala, interesatuek hilaren 24ra arte izango dute laguntza horiek eskatzeko aukera. Bestalde, 2017ko diru-laguntza eskuratzeko, eta 2016tik geratzen den % 20a kobratzeko, hala badagokio, 2016an jasotako diru-funtsak justifikatu beharko dira, eta justifikatu ez dena itzuli beharko da. ◀

info+: www.gorliz.eu



Tximiskeriak!!

AITOR
GARAGARZA CAMBRA
Langilea

Sabin Etxea hartzearekin amets erotikoak

Ezker Iraultzailearen baitan oso barneratuta dago garaipenaren egunaren unea iritsiko dela, neguko jauregia hartuko dugula, garaipenaren belaunaldia izango garela, Bastilla berriro hartuko dugula... Materialismoaren historikoaren patua jarraituz komunismora iritsi eta «ordun, zoriontsu, izango gara: garailearen poza edukiko dugu edo hildakoen bakea» (Urko). Txis pun!!! historia bukatuko da eta pozik izango gara zeru lurtarrean.

Ezker iraultzaileak munduko edozein tokian eraiki duen iruditegi teoriko, estetiko zein kulturalari besterik ez diogu begirada azkar bat bota behar honetaz ohartzeko. Kristautasunetik datorren ustea oso barneratuta dago gurean, ni neuk Sabin Etxea hartzearekin amets erotikoak ditut.

Akaso, horrela hezi eta hasi garelako, etengabeko borroka honetan garaipenak behar ditugu. Hauek ilusioa sorrarazten digute, borrokarako grina, dudak uxatzen dizkigu, gure egunero-kotasunari zentzua topatzen lagundu ere... Baina zein nolako ondorioak ekarri ditu garaipenaren mitifikazioak?

Garaipena eta porrota hitz ditokomikoak direlarik, askotan, ez beti, ondorioak antzekoak izan dira. Makro zein mikro borroketan gure ekinbidearen desartikulazioa ekarri dute, ibilbide baten amaiera, etsipenera kondentatuak, bidean lagun asko utziz, ezintasunak barneratu gaitu. Garaipenak ase ezin izan dituen usiezko aldarrikapenak, porrotaren aje iraunkorra, garaipena zein porrotaren osteko desmobilitazio, destentsionamendua...

Hortaz, garaipena zein porrotaren birkonfigurazioa ezinbestekoa dugu, herri-mugimenduaren osasunerako. Barne konstruktua deseraiki behar ditugu, berriak sortu. Galeanok zioen, «uto-
piak ibiltzeko balio duela». ◀

ander deuna batxilergo

hau hezkuntzatik

Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunakastola.eus

DIDAK
HAMILTON
IDIOMAS

Ingelesa · Frantsesa · Alemaniera

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6/Iberre 9 · 48600 SOPELA
94 676 30 12
info@didakhamilton.com

Berango



Ornamentazio-iturria berriztatu eta martxan ipiniko dute laster.

Askotariko lanak, udalerrria hobetzeko

Moreaga parkeko ornamentazio-iturria martxan ipini eta skate-parkea berrituko dute, besteak beste.

Askotariko lanak esleituko ditu oraintsu Udalak. Horien artean, Moreaga parkeko Icaza jauregiaren aurrealdean dagoen ornamentazio-iturria martxan ipintzea nabarmendu du. Beharrok esleituta ditu daborduko; 32.000 euroko kostua izango dute. Interes arkitektonikoko iturria da aipatutakoa, babestuta dago. Horrenbestez, hori berritzeko, martxan ezartzeko eta balioa emateko

lanak egingo dituzte laster; argitze-sistema berria ere ipiniko diote. Horrez gainera, oinezkoentzako zazpi pasabide ipini dituzte Lantzarte auzoan, Simon de Otxandategi kalean eta udal-kiroldegiairean artean. Horietako hiru errepidearen aldatsaren gainetik zentimetro batzuk altxatzen dira, eta beraien helburua da autoak astiroago joanaraztea, besteak beste. Horrek eragin du espaloiak igotzea eta irisgarritasuna hobetzea. Lanon aurrekontua 25.000 eurokoa da. Bestalde, skate-pista diseinatu eta berrituko dute; «oso gutxi» erabiltzen ziren aldats txikiak kentzea aurreikusi dute, «erakargarriagoak diren elementuak ipiniz». Horretara 15.000 euro bideratuko ditu Udalak. ◀

Plentzia

Gabonetako ludotekan izena ematea, amaitzear

Oraindino denbora badago ere, azaroaren 10a izango da azkenengo eguna Udalak prestatu duen Gabonetako programan izena emateko. Horretarako, gura duenak Goñi Portalera hurreratu beharko du, egun hori baino lehenago. Gabonetako ludoteka-programa 2004 eta 2013 urteen artean jaio diren neska-mutilentzat prestatuta dago, eta abenduaren 26tik urtarrilaren 5era artekoa izango da, goizeko 10:00etatik 14:00etara, Plentziako eskolan. Denbora tarte horretan, etxeko txikienek askotariko jardueraz gozatzeko aukera izango dute; horien artean, nabarmentzekoa da Umeentzako Gabon Parkera irteera berezia, abenduaren 28an. Horretara, 2004 eta 2011 urteen artean jaiotako neska-mutilak joan ahal izango dira. Ostera, gainerako adinetako umeek ipuin-kontalariak gozatzea izango dute aukeran. ◀

Elkarregaz euskaraz berba egiteko, Mintzodromoa

Gorlizko eta Plentziako euskara-zaleek hitzordu ederra izango dute egunean, hilaren 9an, Jai Alai frontoian egingo duten Mintzodromoan. Goizeko 10:00etan ipini dute hitzordua, eta ordu biz «Zer egin zure herrian euskararen alde?» itaunaren gainean berba egiteko aukera izango dute bertaratuko diren denek. ◀



Gure esku

ZELAI
NIKOLAS EZKURDIA
Legelaria

Eta erabaki ondoren, orain zer?

Ari gara erabaki duten herrien orbana zabaltzen Euskal Herriko mapan eta herritarrok Azaroaren 5ean erabakitze eskubidea guregana ekarri dugu berriz. Jada, 180 herritan 175.393 herritar erabakitze prest gaude.

Datuak datu, ordea, erabakitzeko egindako bideari erreparatu nahi diogu eta, azpimarratu, hautetsontziak kalera ateratzeko egindako lan ona. Herritarren eskutik izaten ari da posible gure herrian erabakitzea, gu izaten ari gara protagonista nagusiak. Zenbat konplizitate josita; zenbat aurreiritzi gaindituta; zenbat ikasi dugun; zer-nolako poza partekatutu... Hori dena da azpimarratzekoa. Bidea ondo biribildu dugun sentsazioarekin amaitu dugu erabakitze etapa hau. Hori herria egitea da. Herri ahaldundua, alegia. Erabakitze aroak eskatzen duen kultura eta mentalitatea duen herria eraikitzen ari gara.

Ez dakit behar bezala ohar-tzen garen, baina XXI. mende honen hasieran iraultza demokratikoa dugu abian, bai Katalunian bai Euskal Herrian ere. Iraultza hori herritarren eskutik heldu da, behetik gora, herritarren borondatean oinarrituta eta herritarrok XX. mendeko demokrazia eredu zaharrari hainbat marra gorri jarrita gainera. Izan ere, XXI. mendeko erronka demokrazian sakontzea da, arrazoiaren indarra ezartzea normaltasun demokratikoaren erdigunean. Herritarren borondatea bideratzeko tresnak jartzen dituen eta herritarren borondate eta erabakiak errespetatzen dituen demokrazia eredura pasa nahi dugu.

Paradoxikoa da, baina Katalunian eta Euskal Herrian galdere bera dugu aurrean: Herri galdeketa eta gero zer? Erabakitze borondatea elkarrekin edukiz bete eta borondate hori demokratikoki bideratu. Hori da hurrengo erronka. ◀

Uribe Kosta

Azalik Onenaren aitortza, Tokikom Sarietan



Joan den urriaren 27an banatu zituzten Tokikom 2017 Sariak, Usurbilen. TOKIKOM

Aipamen Berezia ere jaso du HIRUKAk: udako zenbaki monografiko berezian, informazioa hedatzeko transmedia-trataera erabiltzen ahalegintzeagatik.

Toki komunikabideetan lan asko eta handia egiten da; baina, sarri, euren izaera «lokalagatik», lekuan lekukoek baino ez dituzte eza gutzen. Lan hori zabaltzeko guran, Tokikom sariak banatu dituzte, bigarren, euskal komunikabide horietan egindako lanik onenak aitortzeko asmoz. Horien artean, bigarren urtez, HIRUKA-

ri aitortu diote Azalik Onenaren saria: *Itsasadarrean, bizirauten* lanari. Udal-ko zenbaki bereziari ere Aipamen Berezia egin diote, «informazioari trataera transmedia emateko ahalegina egiteagatik». HIRUKA: «Uribekostarrok, zuonak dira sariok! Eskerrik asko hirukakideei, beharginei, Artefaktori eta eskualdeko hiruka-irakurle denei!». ◀



Saharaz hegoaldeko hainbat herrialdetako emakumeen dozena bat argazkik osatzen dute erakusketa. © DERANDEIN

SOPELA

Afrikako emakumeek bizi duten egoera irudikatuz

Azaroaren 24ra arte, *Afrika emakume izenarekin* goiburuko argazki-erakusketa ikusteko aukera egongo da, Sope-lako Kurtzio kultur etxean; sarrera, doan. Espozizioa Derandain Fundazioak antolatu du; gobernu kanpoko erakunde horrek Saharaz hegoaldeko hainbat herrialdetan lan egin du, azken 10 urteetan . Hala, denbora horretan, Afrikako ekialdean aterata-

ko dozena bat irudi aukeratu dituzte, erakusketa osatzeko: Saharaz hegoaldeko emakumeen egoera, hezkuntza, osasuna, jendartean daukaten partehartzea eta beste hainbat gai islatzen dituzte argazkiek. Kurtzio kultur etxea asteleheneretik domekara egoten da zabalik, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara arte.

Derandain Fundazioa 2007an sor-

tu zen. Garapenerako gobernuz kan-poko erakunde horren helburua da «Afrikako pertsonen eta herrialde kalteberenen zein ahulenen bizi-bal-dintzak hobetzea, betiere giza esku-tatuz eta defendatuz». Hori lortzeko, aipatutako herrialdeetako elkarteak kaz elkarlanean dihardute. ◀

info+ : www.derandain.org

ANTZERKIA

AZAROAK 9, EGUENA

El primer tren que salga
antzezlan laburra

19:30/20:30 | Karl Marx, 8 | Erandio

Astrabuduko Antzerki Astea. Lastima Teatro taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

AZAROAK 10, BARIKUA

Bat, bi, hiru, festa!
pailazo-ikuskizuna

17:00 | Areneazpi kalea (Algorta) | Getxo

Hezetasuna auzoko jaiak. Euskaraz. Doan.

La hora Abba musikak
lagundutako bakarriketa

20:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Astrabuduko Antzerki Astea. Chema Trujillo-gaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

AZAROAK 11, ZAPATUA

Denak desberdinak, bakoitza
beharrezko ipuin-kontaketa

11:30 | Algortako kultur etxea | Getxo

Bizarra Lepoan Euskara Elkar-teak antolatuta. Pello Añorgagaz. 6 urtetik gorako umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

On/off. La travesía en un
instante bakarriketa

19:00 | Berango Antzokia | Berango

Lola Markaidagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Interior de dormitorio
antzezlan laburra

19:30/20:30 | Karl Marx, 8 | Erandio

Astrabuduko Antzerki Astea. Lastima Teatro taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

La extinta poética

20:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Nueve de Nueve antzerki-taldeagaz.

Gaztelaniaz. Sarrera: 6-12 euro.

AZAROAK 12, DOMEKA

Plic, ploc... plik musikak
lagundutako antzerkia

16:30/17:45 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Musikaldia. Pasadas las 4 taldeagaz. Ikuskizuna 3 urte arteko ume-xoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro, umeentzat; eta 5 euro, helduentzat.

Arturo y Clementina

18:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Titiritrán Teatro taldeagaz. 4 eta 10 urte arteko umeentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,75-5 euro.

¡Badabam Badabum!

19:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

AZAROAREN 24RA ARTE

Afrika emakume izenarekin
Kurtzio kultur etxea | Sopela

Derandain Fundazioaren argazki-erakusketa. Asteleheneretik domekara arte. Sarrera, doan.

AZAROAREN 27RA ARTE

Xabiroi

Xake plaza (Areeta) | Getxo

Komikien erakusketa. Asteleheneretik domekara arte. Sarrera, doan.

ABENDUAREN 14RA ARTE

Harriet antologikoa: gidoilaria
Xake plaza (Areeta) | Getxo

Komikien erakusketa. Asteleheneretik domekara arte. Sarrera, doan.

Daniel Gojénola: Zinekomik

Glass Grill Urbano (Areeta) | Getxo

Komikien erakusketa. Asteleheneretik domekara arte. Sarrera, doan.

ABENDUAREN 23RA ARTE

Igarotzeak

Zirri-marra arte-tailerra (Anboto, 2) | Getxo

Mertxe Perizen artelanak. Sarrera, doan.

GASTRONOMIA

AZAROAK 12, DOMEKA

XXXIX. Lapikoko Txapelketa

10:00 | Hezetasuna auzoa (Algorta) | Getxo
Hezetasuna auzoko jaiak. Lapikoak 12:00etatik 14:00etara arte aurkeztu beharko dituzte.

JARDUNALDIAK

AZAROAK 11, ZAPATUA

Topaketa Feminista

10:00 | Altzagako azoka zaharra | Erandio
Erandioko Sare Feministak antolatuta. Besteak beste, berbaldiak, tailerrak, bazkaria eta ikuskizuna egongo dira. Informazio gehiago: erandikosarefeminista@gmail.com

KONTZERTUAK

AZAROAK 9, EGUENA

Rewind (pop-rocka)

20:00 | El Comercio taberna (Areeta) | Getxo

Getxo Live zikloa. Sarrera, doan.

AZAROAK 10, BARIKUA


Abesbatzen topaketa

19:30 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Musikaldia. Lagun Artea (Sopela) zein Untzaga (Elbar) abesbatzek eta Haroko nagusien etxeko koroak parte hartuko dute. Sarrera: 3 euro.

hiruka

Uribe Kostako astekaria



**Gehigarri
berezia**

2017ko
azaroaren 9tik
azaroaren 15era arte

Eta niretzat zer?

Zuk maite beste merezi dudalako!

MADARIAGA PENTSUAK

**MASKOTENTZAKO PENTSUAK
eta OSAGARRIAK**



*Hartu gure prezioen ohitura!
¡Acostúmbrate a nuestros precios!*



ORDUTEGIA:
Astelehenetik barikura:
16:30-19:30
Zapatuan:
9:00-13:00

Mendiondo auzoa, 1
48610 Urduliz
Tel.: 946 763 050 • 620 678 677
piensosmadariaga@gmail.com

Lagun iletsuak bihotzez jagoteko

Jolasten txakur-zentroa, Urdulizko naturan



Ordutegia:

Astelehenetik barikura,
10:00-13:00 eta 16:00-20:00;
zapatuetan, 10:00-14:00.

Helbidea:

Zalbidea auzoa, 57. lursaila,
6. eremua. 48610 Urduliz.

Telefona:

605 708 511.

Posta elektronikoa:

centrocanino@jolasten.net

Ezelako konpromiso barik galde dezakezu, txakur nagusien eta ebakuntzen osteko arretaren gainean ere bai.

Jolasten txakur-zentroan maskota zainduko dizute, zuk ezin duzunean.

Jolasten txakur-zentroa naturaren erdian dago, euren txakurrek behar duten zaintza eta arreta jaso ditzaten. Han, lagun iletsuek aukeratu dute jolastea, gozatzea eta jarrera

sozialak hobetzea, gogokoena egiten duten bitartean: txakur izatea. Betiere, langileek gainbegiratzeko dituzte; zainzaileek eskarmentu handia dute maskotak jagoten, txakur-portaeran, trebakuntzan eta jokabide problematikoen aldatzeko.

Jolasten txakur-zentroan lana bihotzez egiten dute, txakurrei maitasun eta errespetu osoa erakutsiz, horien familiak txakurrez arduratu ezin

direnean eta horien zaintza euren esku uzten dutenean. Hotel-zerbitzuak zenbait irtenbide eskaintzen du: gau bakarreko edo iraupen luzeko egonaldia eskaintzen dituzte, programatu dituzun oporrak direla edo ezustean egin beharreko bidaia dela eta; zure lagun leiala ondo zainduta eta gozatzen egongo dela jakinda egingo duzu bidaia. Edo lanaldi luzeak badituzu, eta txakurra bakarrik luzez utzi behar ba-

duzu, eguneko ordutegi zabaleko kumeen zaintzak lagunduko dizu. Hala, zure eginbeharrak bete ahal izango dituzu, zure txakurrak instalazioez gozatzeko duen artean; jasotzean, lasai, baketsu eta zoriontsuago aurkituko duzu. Gainera, banaketa-antsietateak eragindako estresa edo beste ondorio desatseginak eragotziko dituzu. ◀

www.jolasten.net

Algorta

Albaitaritza Zentroa
Centro veterinario

Familian albaitaritza-medikuntza
Katuentzako aretoa eta arreta berezitua

✉ basagoiti64@algortavet.com
📍 Basagoiti etorb., 64 • Algorta

☎ 944 362 970
📱 @algortacentroveterinario

Eleixalde, 15 • URDULIZ

685 730 495
655 712 223

koLore
Arte Floral

94 602 96 53

koloreartefloral@gmail.com
buscanos en **facebook** ean topatu

LARRAÑAZUBI
TXAKUR EGOITZA

50€/hileko
5€/eguneko

TEL.: 608 875 717 Larrañazubi kalea, 19 • Getxo

ZAPACAN

- TXAKUR, KATU, TXORI, ARRAIN, DORTOKA eta KARRASKARIENTZAKO JAKIEN ETA OSAGARRIEN SALMENTA
- TREBAKUNTZA eta KUME-ZAINTZA
- ILE-APAINDEGIA

zapatu eta domeketan ere zabalitzen dugu
11:00etatik 14:00etara

Erribera, 26 • PLENTZIA
Tel.: 946 772 669

www.zapacan.com

Errespetuan oinarritutako lotura

Txiki-Eder txakur-trebakuntzako zentroa

TXIKI-EDER

Treatzaile adituak eta profesionalen zerbitzuak eskaintzen ditu Txiki-Ederrek.

Ordutegia:

Astelehenetan eta eguaztenetan,
10:00-13:30 eta 17:00-21:00; gaine-
rako astegunetan, 10:00-13:30 eta
17:00-19:00; zapatuetan, 10:00-13:30.

Helbidea:

Zurbano auzoa, 71. 48110 Gatika.

Telefonoak:

946 152 706 / 659 394 363.

Posta elektronikoa:

txiki-eder@hotmail.com

Errespetua da Txiki-Ederreko

profesionalen ardatza txakurrak trebatzeko.

Txiki-Eder txakurrentzako trebakuntza- eta psikologia-zentroa 1991n zabaldu zuten. Daborduko, 25 urte baino gehiagoko eskarmen-tua daukate txakurrekin; jabeak eta

txakurrak hezten dabilta hasieratik, pertsonen eta maskoten arteko lotura bultzatzen. Zentroak txakur-hotel zabala dauka; bertan, bakoitzak bere box propioa du, eta badaude olgetan ibiltzeko berdegune handiak eta fly-ball egiteko bizkortasun-pista, txakurrak eta gidariak trebatzeko eta elkarregaz ondo pasatzeko. Txiki-Ederreko instalazioetan trebakuntza- eta psikologia-zentroa ere badago. Bertan, jokae-

ra-arazoei konponbideak aurkitu eta irakasten dituzte, betiere euren maskotekiko erabateko errespetutik, alde biek elkar goza dezaten. Agresibitatea, beldurak, antsietatea, eta diziplina eza jorratzen dituzte besteak beste.

Gainera, Txiki-Ederrek honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu: txakur-egoitza, norbanako eta taldeko ikastaroak, txakurrentzako aisialdi-parkeak, soziabilitate-probak, jabeen-

tzako heziketa-mintegiak, maskotez arduratzeko aholkularitza, goi-mailako pentsuak eta txakurrak hezteko tresnak. Bestalde, txakurrak batera egiteko hainbat lan-eredu dute: genero-bortxakeriaren aurkakoa, zooterapia, birgizarteratzea, segurtasun-lana, umeentzako campusak eta erreskate-taldea. ◀

www.txiki-eder.com

CUATRO PATAS TXAKUR-ZENTROA

- Hotele eta kumeen zaintza
- Denda, ile-apaindegia
- Trebakuntza
- Disc Dog eta obediencia-kluba
- Etxez etxeko zerbitzua
- Igerilekua

Zabalbide auzoa, 24 URDULIZ
Tel.: 946 152 892
608 176 817

www.kuatropatas.es • kuatropatas@kuatropatas.es

ALBAITARITZA KLINIKA SOPELANA

Sabino Arana, 28 SOPELA

Barne-medikuntza • Kirurgia
Ultrasonu bidezko hortz-garbigeta
Txertoak • Analisi klinikoak
Erradiologia digitala • Ekografiak
Elikadura berezitua • Ile-apaindegia
Osagarriak

TELEFONOA
946 761 204

LARRIALDIAK
657 771 680

ORDUTEGIA:
ASTELEHENETIK BARIKURA:
10:00 - 13:30 • 17:00 - 20:00

ZAPATUAN:
11:00 - 14:00

Guan Guan!

GUAU GUAU 10 URTE BAINO GEHIAGO ZURE ESANETARA, ZURE TXAKURRAREN ILE-APAINKETA ZERBITZUAN.

Edozein motatako **APAINKETAK**:
makina, artziak, labana, stripping-a.

Hitzordua eskatu!
946 557 460

Eskaintzen ditugun **SPA** eta **OZONOTERAPIA** produktu desiratuez gain, gure zerbitzua honako hau da:

- Arazadun edo osasuntsu ez dauden azalen sendaketa.
- Garbiketa sakanagoa: birusak, onddoak, bakterioak suntsitu.

Ordutegia: 10:00-14:00 • 17:00-20:00

Txakurzulo bidea, 1 • ERANDIO

Sipiri kalea, 12 Udaletxe atzean

Sopelak badu txakurrentzako jolas parke berritzailea, hurbildu zaitetz!

Sopela

**Nafarroa hegoaldeko
baratza dastatzeko
eta euskara bultzatzeko
egundoko aukera!**



*Melokotona elmidorren
Pikillo piperrak
Ondurak
Zaururak
Artoak
Ospino
Pastak
Arroz
Teileak
Molinarentzak
Patzara-patzak
Tomate oliorekin
Pikillo paper mome*

**Gabon hauetan,
hirukakide guztien artean,**

ERRIGORAren LAU SASKI ZOZKATUKO DITUGU

**Egin zaitez HIRUKALAGUN
edo HIRUKABAZKIDE,
eta zuk ere zozketan
parte hartu!**

**ZOZKETAN
PARTE HARTZEKO:**

e-mailez

administrazioa@hiruka.eus

telefonoz

944 911 337

agerkariaren bidez

<http://hiruka.eus/harpidetza/laguna/>



*Melokotona elmidorren
Pikillo piperrak
Ondurak
Zaururak
Artoak
Ospino
Pastak
Kondoa
Almendrak
Olibo-olibo
Maketa-eukoa
Pikillo saltza
Arroz-momeleko*

ZURIA EDO BELTZA



Zikoinak ikusteko aukera, euskaraz

Azaroaren 12an, domekan, *Zikoinak* umeentzako animazio-filma emango dute, Berango Antzokian. Emanaldia 19:00etan hasiko da; sarrera, doan. Filma euskaraz izango da; Zineuskadi elkartek itzuli egin du eta.

Txoriak protagonista, Zobaranen ipuinean

Uhuri, gautxoriarren uluak goiburuko ikuskizuna aurkeztuko du Doro Zobaran ipuin-kontalariak, azaroaren 16an, eguenean, Villamonteko liburutegian. Saioa 18:00etan izango da; sarrera, doan. 5 urtetik gorako umeentzat da.

Karakol-txapelketan izen-ematea, zabalik

Ohi den legez, karakol-lehiaketa gastronomikoa egingo dute abenduaren 8an, Gorlizen. Hala, azaroaren 30era arte zabalik egongo da izena emateko epea; kultur etxera jo beharko dute txapelketan parte hartu gura dutenek.



Aktore eta umorista biek Antena 3eko *Alli abajo* telesaillean parte hartzen dute.

Plazaola eta Txaflas, Urdulizen

Antena 3 kateko *Alli abajo* telesailleko Jon Plazaola protagonista urretxuarra gonbidatu dute, Urdulizko Umore Gauk egitasmoaren denboraldi berria abiarazteko. Beragaz batera, telesail berberean parte hartzen duen Iñigo Salinero *Txaflas* gasteiztarra igoko da agertokira.

Noiz: Azaroak 11, zapatua.
Ordua: 21:00
Non: Urdulizko kultur etxea.
Sarrera: 6 euro.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoa honetara: hiruka@hiruka.eus

La gran depresión

19:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Emakumeak Eszenan zirkuitua. Luma Llena taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

AZAROAK 15, EGUAZTENA

Zuhaitzean hazitako ipuinak kontaketeta-saioa

18:00 | Altzagako liburutegia | Erandio
Izaskun Mujika ipuin-kontalariagaz. 5 urtetik gorako umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

AZOKA

AZAROAK 12, DOMEKA

XXXVI. Artisautza Erakusketa
11:00 | Iturgitxi kalea (Algorta) | Getxo
Hezetasuna auzoko jaiak. Sarrera, doan.

BERBALDIAK

AZAROAK 9, EGUENA

Mintzodromoa

10:00-12:00 | Jai Alai frontoia | Plentzia
Plentzia eta Gorlizko Euskara Agenda Bateratua. Gaia: zer egin zure herrian euskararen alde? Izen-ematea: 647 336 604

AZAROAK 15, EGUAZTENA

Leioako Irakurle Kluba

19:30 | Kultur Leioako hemeroteka | Leioa
Iñigo Roque Eguskitza itzultzaileak *Zorion klaudestinoa* liburuaz berba egingo du. Euskaraz. Sarrera, doan.

DANTZA

AZAROAK 11, ZAPATUA

XXVIII. Juanjo G. Mendibil aurrekulari-txapelketa
19:00 | San Nikolas ikastola | Getxo
Algortako Hezetasuna auzoko jaiak. Doan.

AZAROAK 12, DOMEKA

Lindy hoop!! dantza-eskola

12:00 | Josu Murieta plaza | Erandio
Astrabuduko Antzerki Astea. Helena Golab dantzariagaz. Gaztelaniaz. Doan.

ERAKUSKETAK

AZAROAREN 13TIK ABENDUAREN 8RA ARTE

Bosteko 2017

Kultur Leioako erakusketa-gela | Leioa
Astelehenetik domekara arte. Sarrera, doan.

Plentziako Kantagune

21:00 | Eliz plaza | Plentzia
Kantu-jiran abiatu baino lehen, entsegua egingo dute, 19:30ean, baselizan.

Zozoak abesbatza

20:00 | San Martin eliza (Algorta) | Getxo
Hezetasuna auzoko jaiak. Doan.

Bochornorama eta Urrats

20:00 | Iturgitxiko karpa (Algorta) | Getxo
Hezetasuna auzoko jaiak. Doan.

AZAROAK 11, ZAPATUA

Kontzertu klasikoa

20:00 | San Pedro eliza | Sopela
Musikaldia. Yolanda Gomezek (organoa) eta Arantxa Anunzitak (biolina) joko dute. Doan.

Hijos de tu Iglesia eta Josetxu Piperrak musika-taldeak

21:30 | Iturgitxiko karpa (Algorta) | Getxo
Hezetasuna auzoko jaiak. Doan.

MOBILIZAZIOA

AZAROAK 11, ZAPATUA

Arrazoiak hamaika.
Ibarbengoako parkingari ez!

12:30 | Teletxe plaza (Algorta) | Getxo

Tosu Betirako taldeak manifestazioa delitu du.

ZINEMA

AZAROAK 10, BARIKUA

Marija

21:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Cinema Paradiso. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,90 euro.

AZAROAK 11, ZAPATUA

La vida de Calabacín

17:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Animazio-filma. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

Tu mejor amigo

18:00 | Kultur etxea | Urduliz
Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

El guardián invisible

19:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

AZAROAK 14, MARTITZENA

Maria (y los demás)

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Perseo Zineforuma. Espainiar Zuzendariak zikloa. 7 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Ploc, ploc... plik ikuskizuna 3 urtera arteko umetxoei zuzenduta dago. Saio bi egingo dituzte, azaroaren 12an, domekan. © PASADAS LAS 4

Ekitaldiak

Azaroak 10, barikua

19:30 Abesbatzen topaketa, Kurtzio kultur etxean. Sarrera: 3 euro.

Azaroak 11, zapatua

20:00 Kontzertua, organoagaz eta biolinagaz, San Pedro elizan. Sarrera, doan.

Azaroak 12, domeka

16:30/17:45 *Ploc, ploc... plik* umeentzako antzerkia, Kurtzion. Sarrera: 3-5 euro.

Azaroak 17, barikua

20:00 *Nocturnos para el día* kontzertu klasikoa, Kurtzion. Sarrera: 3 euro.

Azaroak 18, zapatua

20:00 *Soinuaren bidaia* ikuskizuna, Kurtzion. Sarrera: 3 euro.

Azaroak 19, domeka

12:00 *Bi poliedro* kontzertua, Kurtzion. Sarrera: 3 euro.

18:00 San Asensioko Udal Banda, Kurtzion. Sarrera: 3 euro.

Musikaldia, Sopelan

Udagoieneko musika-zikloaren barruan, zazpi emanaldi egingo dituzte; horien arteko sei Kurtzio kultur etxean izango dira, eta, bat, San Pedro elizan.

Azaroaren 10etik 19ra arte, udagoieneko musika-zikloa egingo dute, Sopelan. Hala, aste-akabu bietan umeei, familiako kide denei eta, orokorrean, doinu klasikoak gogoko dituzten entzuleei begirako zazpi emanaldi egongo dira; zapatukoa izan ezik, denak izango dira Kurtzio kultur etxean. Abesbatzen topaketa egingo dute Musikaldia abiarazteko, bariku

honetan, azaroaren 10ean. Kontuak horrela, 19:30etik aurrera, Haroko nagusien etxeko koruagaz batera eman go dute kontzertua Sopelako Lagun Artea eta Eibarko Untzaga abestaldeek; sarrerak 3 euroan egongo dira. Biharamunean, zapatuan, Yolanda Gómez (organoa) eta Arantxa Anunzita (biolina) musikariek joko dute, San Pedro elizan. Saioa 20:00etan izango da; sarrera, doan. Aste-akabu hone-

tako ekitaldiak amaitzeko, domekan, *Ploc, ploc... plik* musikaz lagundutako antzerkia aurkeztuko du Pasadas las 4 konpainiak, azaroaren 12an; 3 urte arteko umetxoentzako ikuskizuna da. Horrenbestez, saio bi egingo dituzte: bata, 16:30ean; bestea, 17:45ean. Umeek 3 euro ordaindu beharko dituzte; helduek 5 euro. Pasadas las 4 antzerki-taldeari dagokionez, Francesca Romana (arpa), Hélène Billard (txirula) eta Anthony Lafargue (perkusioa) musikariek osatzen dute, Belen Otxotorena eta Inma Gurrea aktoreakaz batera. Musikaldia zikloak hurrengo aste-akabuan jarraituko du, *Noctur-*

nos para el día Alejandro Aparicio-ren (gitarra) kontzertuagaz, musika eta dantza uztartzen dituen *Soinuaren bidaia* ikuskizunagaz, *Bi poliedro* (txistua eta soinua) emanaldiagaz eta San Asensioko Udal Bandaren entzunaldiagaz. Azken talde hori Errioxatik etorriko da Sopelara, Jesús Urrutia Graciaren zuzendaritzapean. Gainera, jotzen dabilten bitartean, euskarazko azalpenak emango dituzte; familia-ko kide denentzako emanaldia izango da Sopelako Musikaldia itxiko duena. Bestalde, azaroaren 17an, kontzertuan bertan, azalpenak emango ditu Alejandro Aparicio gitarristak. ◀

Azaroan abiarazi dute Getxo Live! berriro

Getxo Live! edo Getxo Zuzenean izenakaz ezaguna den ekimenaz azaroaren 2an abiarazi zuten berriro; Malvadiños taldeak rock-kontzertua egin zuen, Algortako The Piper's taberna irlandarrean. Kultur Etxeko arduradunek azaldu dutenez, «egitismo horren bidez, bertoko musika-taldeak kontzertu-zirkuitua antolatzen da eta, horrela, euren lana publikoari zuzenean erakusteko aukera daukate». Hilabete bost saio egingo dituzte, Getxo udalerriko ostalari-tza-establezimenduetan; eguenetan izango dira kontzertuak, 20:00etan; sarrera doakoa izango da. ◀

Hurrengoak

Azaroak 9, eguna

20:00 Rewind (pop-rock) taldea, Areetako El Comercio tabernan. Sarrera, doan.

Azaroak 16, eguna

20:00 Bikoizten (pop-rock) taldea, Algortako Jolasaurre tabernan. Doan.

Azaroak 23, eguna

20:00 Willie Endaya (blues), Getxoko Kirol Portuko Silver's tabernan. Sarrera, doan.

Azaroak 30, eguna

20:00 Jazzte Borrazte Band (jazz) taldea, Areetako Glass tabernan. Sarrera, doan.

Euskal Kantu Liriko Berriak izeneko kontzertua egongo da, Areetako musika-eskolan

Zapatu honetan, azaroaren 11n, Euskal Kantu Liriko Berriak izeneko egitasmoa taularatuko dute, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. Ekitaldian parte hartuko dute Marta Velascok (mezzosopranoa), Alberto Núñezek (tenorra), Elena Cadiernok (piano-jolea) eta Sabino López de Gureñok (narratzailea). Saioa 20:00etan hasiko da, eta sarrerak 6 euroan egongo dira. Getxoko Kultur Etxeko arduradunek azaldu dutenez, «euskal abesti liriko berriak sortzea eta zabaltzea xede duen proiektua da, zenbait kantutegitatik batutako beste abesti tradizionalekin batera». ◀

Antzerkiaren Astea egiten dabilta Astrabuduan, Lastima Teatroren ekimenez

Lastima Teatro taldeak antolatuta, Astrabuduko Antzerki Astea egiten dabilta egunotan. Kontuak hala, gaur zein zapatuan, antzezlan laburrak egingo dituzte, antzerki-konpainiak Karl Marx kalean daukan egoitzan. Egun bakoitzeko saio bi egongo dira: bata, 19:30ean; bestea, 20:30ean. Egitarauari jarraituz, bihar, barikuan, azaroaren 10ean, *La hora Abba* bakarriketa musikala egingo du Chema Trujillok, 20:00etan, kultur etxean. Azkenik, domekan, Helena Golab dantzariaren *Lindy hoop!* erakustaldia egongo da, hilaren 12an, 12:00etan, Josu Murueta plazan. ◀



Zabalera

JOSEBA
SANTXO URIARTE
Filologoa, idazlea, ikertzailea

Euskaldunon pazientzia mugagabea

Gogoan dut noiz eta zelan entzun nuen Euskadi Irratiaren lehendabiziko saioa: 1982ko azaroaren 23an, Tolosako Oyarbide ostatuan. Hara joana nintzen Martuteneko Itzultzaile Eskolak ematen zuen ikastaldi batean parte hartzera eta, bide batez, Bergarako UNEDen egiten niharduen B mailarako tesina -Getxoko euskarari buruzkoa- prestatzera.

Neuk hartu nuen poza lehenengo albistegia euskara hutsez entzun nuenean. Orain, ia 35 urte igarota, orduko poza pena bilakatu zait. Eta ez irrati horren jarduna eten delako, baizik eta bertako esatariek, berbetan ari direla, euskal deklinabidearen kasu mugagabea txarto erabiltzen dutelako. Sistematikoki. Egunero-egunero. Eta ez esatari bakarrak, hainbatek baino: *hainbat hizkuntzek lortu dute maila hori, *zenbait eskolek ateak itxi dituzte, *bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu...

Mila adibide gehiago eman nitzake, tamalez, baina ez da hori zutabe honen helburua. Erreakzioa bilatzen dute hitz salatariok. Zoritxarrez, euskararen lorpenez hitz egitean, nekez hartu ohi ditugu kontuan honelako txikikiariak. Baina bitartean gure hainbat ikaslek euskara azterketa suspentitzen dute mugagabea gaizki deklinatzeagatik. Eta bitartean, Euskaltzaindiak zenbait agiri argitaratzen du mugagabearen erabilera zuzenaz. Eta bitartean, Euskadi Irratiko hainbat esatarik jarraitzen dute euskaldunon belarriak zigortzen. Noiz arte?

Zutabe hau irakurrita Euskadi Irratiko kazetariren bat haserretu eta deklinabidearen kasu mugagabea zuzen erabiltzen hasiko balitz, nire belarriek -eta hainbat euskaldunenek- ikaragarri eskertuko lukete. Eta, batez ere, euskararen kalitatezko etorkizunean sinesten lagunduko lidakete/ligukete/liekete. ◀



Book trailerra osatzeko beharrezko osagaiak dira honako hauek; liburuak, irudiak (bideoa zein argazkiak), testua, ahotsa eta musika. © KALABAZAN

Book trailerren lehiaketa

Kalabazan Kultur Ekimenak elkarteak Book Trailer Lehiaketa martxan ipini du, laugarren urtez. Lanak maiatzaren 11ra arte bidal daitezke.

Bueltan da Getxoko Book Trailer Lehiaketa. Gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea da horren helburua; beren beregi, 12 eta 18 urte arteko neska-mutilei begirakoa da. Parte hartu gura dutenek aukeran eskaintzen diren liburuetako bat irakurri beharko dute eta horren trailerra egin. Kalabazan elkarteak kideek azaldu dutenez, fil-

metako trailerren antzeko teknikak erabiltzean datza Book Trailer lehiaketa, liburuak ezagutzera emateko eta irakurleak erakartzeko. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 11 izango da, antolatzaileek zehaztu dutenez.

Gehienez, hiru pertsonako taldeek parte har dezakete lehiaketan. Lanak Kalabazan elkartearen helbide elektronikora bidali beharko dituzte; bi-

Oinarrietako batzuk

Zelan parte har daiteke?

Gehienez, hiru pertsonako taldeetan. Kategoriatan: A (12-15 urte) eta B (16-18 urte).

Zelan aurkez daitezke lanak?

Youtuben eskegi ostean, horren lotura posta elektronikoz bidali beharko dute: sardadilakapabazan@gmail.com

Sariak

A kategoriako irabazleek 300 euro jasoko dituzte; B kategoriakoek, tablet bana. Publikoaren saria ere egongo da: abentura-kamera bat.

Aurkezteko epea

Maiatzaren 11ra arte.

deoak Youtuben eskegi ostean, horren lotura posta elektronikoz bidali beharko dute. Aurten ere kategoriatan egongo dira: A (12-15 urte) eta B (16-18 urte). A kategoriako irabazleek 300 euro jasoko dituzte; eta, B kategoriakoek, tablet bana. Bigarrenetik, ordean, eskola materiala erosteko 50 euro. Horrez gainera, publikoaren saria emango dute: sari-banaketara hurreratuko diren euren bideo gustukoena bozkatuko dute; boto gehien lortzen dituen taldearen kide bakoitzak abentura-kamera bana jasoko du. ◀

parte hartzeko: sardadilakapabazan@gmail.com

Zinebi jaialdia egingo dute, egunotan, Bilbon

Bilboko Zine Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren 59. edizioa abiaraziko dute bariku honetan, azaroaren 10ean. Egun horretan egingo dute Zinebi lehiaketara aurkeztu diren euskal film laburren emanaldia, Alberto Iglesias musikagile donostiarrari Ohorezko Mikeldia emateaz gainera. Zinemaldiak 20:00etan zabalduko ditu ateak, Arriaga Antzokian. Edizio honetako Ohorezko bigarren Mikeldi saria Marco Bellocchio zinemagile italiarrari emango diote; modu horretan, Europako zinema garaikidearen zuzendari horren filmografia luzea aintzateste. Bellocchio azaroaren 17an hartuko du saria, jaialdiaren amaiera ekitaldian. Horrez gainera, ekitaldi horretan bertan, italiarraren azken film laburra emango dute: *Per una rosa* (2017). Guztira, 32 herrialdetako 62 filmek parte hartuko dute Sekzio Ofizialean, lehiaketako hiru generotako (fikzioa, do-



Guztira, 62 film lehiatuko dira. © ZINEBI

kumentala eta animazioa) Urrezko eta Zilarrezko Mikeldi sariak lortzeko lehian. Hala, proiektzioen egoitza nagusia Azkuna Zentroa izango da (Golem zine-aretoak); baina, saio berezi batzuk beste zenbait lekutan egingo dituzte: Campos Antzokian, Guggenheim Museoaren auditorioan eta Kale nagusiko BBK Aretoan besteak beste. Bestalde, Zinebi First Film saria, munduko dokumentalak eta emanaldi bereziak ere egongo dira. ◀

info+: zinebi.eus

Hitza emanda



Emaitza

Azaroak bost daukaz aroa zorrotza, hemen bozka ta jaia han bozka ta bortxa. Parte-hartze handia han hemen barriz motxa: ba, jarrai lortu arte nahi dogun emoitza!



AITOR ESTEBAN ETXEBARRÍA
Bertsolari itzubaltzetarra.

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Baietz lortu! erronka martxan ipini dute Erandioko futbol-taldeek, hilabete bian euskaraz jolasteko eta euskarak leku handiagoa izateko.

Erandion, 60 egun euskaraz olgatzeko prest

Erandioko futbol-taldeek «Baietz lortu! 60 egunean euskaraz» ekimena aurkeztu dute egunotan, Erandioko Udal Euskara Zerbitzuagaz eta EuSport enpresagaz batera; euskaraz eta euskaragaz jolastea bilatzen du erronka horrek. Aurreneko aldiz egingo dute egitasmoa, eta Futbola Oinarritik Euskaraz (FOE) programaren barruan dago.

Joan den irailean abiarazi zuten FOEren hirugarren denboraldia Erandio kirol-elkarteak eta Astrabudua-ko futbol-taldeak, eta eurakaz batera

hasi zen Erandio Betiko Neskak taldea lehenengo aldiz. Beste aurrerapauso bat eman gura dute eta bost eragileek batera erronka berria martxan ipini dute. Baietz lortu! kanpaina bitarteko izanda, kirol-elkarteen egunerokoan euskarak presentzia handiagoa izatea gura dute. Egokiñe Angulo Euskara zinegotziak azaldu duenez, jolasean parte hartu gura dutenei ekimenak rol bi emango dizkie: mintzo eta adi. Mintzoren papera aukeratzen dutenak prest egongo dira euskaraz eta gaztelaniz entzuteko, eta berba egiteko eus-



EuSportek uste du erronkak hizkuntz egoeraren gaineko datu asko emango dizkiola.

kara hautatuko dute. Ostera, Adi profila gurago dutenek aukera emango diete euskaldunei eta gaztelaniadunei gura duten hizkuntzan berba egin diezaieten. Erabilerari begira, ez dute hartuko euskararekiko konpromiso handirik, baina prest egongo dira dakitena erabiltzeko, gaztelaniagaz batera.

FOEn ez bezala, erronka eta jolas horretan kirol-elkarteetako kide denek parte hartu ahal izango dute, betiere modu boluntarioan. Hala, jokalariek ez ezik, euren rola aukeratu ahal izango dute zuzendaritzako kideek, gura-

soek eta boluntarioek, baita arerio-taldeek eta euren segizioek ere.

Angulok gogorarazi duenez, behe-kategorietako 500 bat ume dabilta FOEn, entrenamenduak euskaraz egiten. Gainera, zenbait aldaketa ipini dituzte klubek, «euskara» beste esparru batzuetan ere «sartu» dutelako: «kar-teletan, webguneetan, sare sozialetan eta abarretan elebidunak dira orain», azaldu du zinegotziak. Modu berean, udal-euskara teknikariek klubak iragarkietarako eta emaitzetarako ohiko txantiloak itzuli dituzte. ◀

Bunk3r gimnasioa, nagusi, Espainiakoetan

Itzubaltzeta/Romoko Bunk3r boxe-eskolak hiru domina lortu zituen Espainiako Gazte Mailako Boxeo Txapelketan, joan den urriaren 24a eta 29a bitartean, Salamancako Béjar herrian. Antony Guzmán itzurbaltzetarrak 52 kiloz azpiko gerrikoa irabazi zuen bere lehenengo lehiaketa-urtean; Guzmánek 15 urte ditu eta 1,64 m luze da. Ander Blanco algortarrak brontzezko domina irabazi zuen 63 kiloz azpikoan, eskola bereko beste kideetako bat da bera. Algortarraren lehenengo lehiaketa-urtea da, Guzmánena legez, baina, orain dela hiru urte hasi zen entrenatzen. Blancok 16 urte



© BUNK3R BOXEO-ESKOLA

ditu eta 1,78 m luze da. Azkenik, Iker Fernándezek ere brontzezko domina lortu zuen, 75 kiloz azpiko mailan. Daborduko, 17 urtekoak hiru domina irabazi ditu Espainiako txapelketetan. ◀

Xabier Pereda karateka, munduko txapelduna

Xabier Pereda Elordui getxo-tarrak irabazi zuen Munduko 21 urtez azpiko Karate Txapelketa, joan den urriaren 29an, Kanariar Uharteetan. Peredak urrezko domina lortu zuen, Kata modalitatean. Isan Getxo karate-klubeko kidea da, eta lorpen hori «banakako probetan lortu duen lehenengo euskal herritarra», kirol-elkarteak adierazi duenez.

Tenerifeko San Cristóbal de la Laguna herrian jokatu zen txapelketa; Peredak bertako udal-kiroldegiko tamiatan garaitu zituen Mykyta Tyukh borrokalari ukraniarra, Gianluca Gallo italiarra eta Sebastian Okamoto

Breit norvegiarra, ligaxkako fasean. Final-laurdenetan, mendean hartu zuen Lukas Grimm alemaniarra; eta finalerdietan, ostera, Loïck Tranier frantziarraren aurka egin behar izan zuen getxoztarrak. Horren eraginez, Peredak 5-0 irabazi zuen eta bere bizitzan bigarren aldiz heldu zen munduko finalera. Izan ere, duela urte bi zilarrezko domina jantzi zuen Yakartan egindako txapelketan. Finalean, Peredak Vefa Goktas turkiarra izan zuen aurrez aurre. Garaipen estua onartu zioten epaileek getxoztarrari: 2-3. «Estuegia» izan zen Isan Getxokoen ustean, baina nahikoa, irabazteko. ◀



AIXERROTA BHI IKASTETXEA

Batxillergoak: • Teknologikoa • Natur eta Osasun Zientziak • Giza eta Gizarte Zientziak
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) B eta D ereduak
Zereginak ikasteko gela (A eta D ereduak)

Informazio gehiago: www.aixerrotabhi.net • 94 491 17 86



Irunbat
galp energia

Loiola Ander Deuna, 74
48600 SOPELA
946 764 625
www.irunbat.net



MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

Bosgarrenez, munduko onena

Oskar Martinez algortarrak munduko txapelketa irabazi du bosgarrenez, kayak-surf kiroleko nazio-selektzioen modalitatean. Martinezek joan den urriaren 29an lortu zuen azken garaipena, Port Rois-en, Ipar Irlandako Antrim konderrian. Beragaz batera lehiatu ziren Luis Abando bakiotarra, Txema Carreto durangarra eta beste hamar surflari gipuzkoar. Algortarrak ospatu zuen «berriro ere» munduko txapeldun izatea, «Ingalaterra, Gales eta Irlanda podiumean gure atzean utzita». Martinezek arantza bakarria izan zuen Irlandako uretan: puntu batengatik master kategoriako *long boat* modalitateko finaletik kanpo geratu

zen, banakako proban. Hala, bosgarren postuagaz konformatu behar izan zen. Halere, «pozik» dagoela azaldu zuen Algortarrak, finalerdian «irabazi ninduten biak geratu direlako munduko txapeldun bata eta hirugarren beste»; orain dela urte bi, brontzea jantzi zuen uribekostarrak. Modu berean, nabarmendu zuen beste euskal herri-tarrek egin zuten «egundoko» erakustaldia: urrezko bi, zazpi zilarrezko eta lau brontzezko domina lortu zituzten. Oskar Martinezek eta euskal selektzioak Bakion eta Mundakan lortu zuten aurreneko txapela, 2007an; urte bi beranduago, Erresuma Batuak irabazi zuen. Ordutik aurrera, txapelketa denak bereganatu dituzte. ◀



Euskal herritarrek irabazi zuten AEBetan (2011), Australian (2013) eta Galizian (2015) ere. © EKFB

Uribekostar bi, Euskal Herriko pilota-txapeldun

Euskal Herriko Bote Luzeko Txapelketaren finala jokatu zen joan den urriaren 28an, Laudioko Lamuza parkean. Bertan, Bizkaiko taldea 4-7 nagusitu zitzaion Gipuzkoako bigarren konbinatuari. Hala, seikote bizkaitarrak jaso zuen pilota-joko horren

Euskal Herriko txapela. Eneko Uribe pilotari leioaztarra eta Inhar Ugarte getxoztarra dira irabazleetako bi. Eurakaz batera jokatu zuten Ander Antxia eta Egoitz Amantegi abadiñarrek, eta Ekhi eta Lur Ziarrusta dimoztarrek.

Bestalde, Kurene pilota-eskolako Garate-Agirre bikotea nagusitu zen joan den domekan, Larruzko Paletako Nazioartekoan. Munduko Pilota Batzarrak antolatutako lehiaketaren finala Sopelako pilotalekuan jokatu zen eta etxekoek irabazi zuten. ◀

Olatz Etxebarriak brontzea lortu du Espainiakoan

Olatz Etxebarriak, Getxo Judo Klubeko borrokalari getxoztarrak, brontzezko domina jantzi eta podiuma zapaldu zuen Espainiako Judo Kopan, kadeteen A mailako 63 kiloz azpiko modalitatean. Txapelketa Avilésen, Asturiasen, egin zuten Euskal Herriko,

Herrialde Katalanetako, Espainiako, Portugalgo eta Frantziako ia 500 judokak, urriaren 28an eta 29an.

Eunate Etxebarriak ere parte hartu zuen kopa horretan, eta zazpigarren lekuan geratu zen, 70 kiloz azpiko mailan; Etxebarriatar biak ahizpak dira. Aurretik, Eunate Etxebarriak hainbat garaipen eta postu on lortu ditu, esaterako, brontzea Espainiako Super Kopan, joan den urriaren 8an, edo Espainiako Umeen Txapelketako urrezkoa, joan den maiatzan. ◀



Europako Zirkuituan eta Japonian jardun du Canalesek azken asteotan. © STYLING

Leticia Canales, umeen alde, minbizia ikertzeko

Leticia Canales surflari sopeloztarrak bere babesaren eman dio Objetivo52 ekimenari. Proiektu horrek 52.000 euro batu gura ditu, ume-minbizia osatzean kirolak eragin ditzakeen onurak ikertzeko. Azterketa Madrillgo Niño Jesús unibertsitate-ospitaleak garatuko du. Daborduko, 16.700 euro

pasatxo lortu dituzte, umeen heziketa fisikoa osatze-terapia osagarri gisa erabil daitekeen ikertzeko. Bestalde, Canalesek bere burua prestatzen segitzen du, 2020. urtean Japoniako Olinpiar Jokoetan parte hartzeko. Aurrenekoz surfa kirol olinpiarra izango da. ◀

info+: Unoentrecienmil.org/objetivo52.html

PELLO AÑORGA

*Denak desberdinak,
bakoitza beharrezko*

Azaroaren 11an, 11:30ean
Villamonte Kultur Etxean
6 urtetik aurrerako umeentzat

Sarrera doan da.
Leku mugatuak!





Taylorrek esperientzia errepikatuko luke; Amallobietak ez du oraingoz kontu gehiagotan sartu gura.

«Gaua gogorra izan zen, malkotan amaitu arte»

Barbara Taylor eta Luis Amallobieta ENZ Indoor Rowingeko kideak arraun-ergometroan lehiatzen dira. Munduko marka ondu zuten urriaren 29an, talde mistoen 24 ordukoa.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA
ARGAZKIA: HODEI TORRES

Lehorreko arraunean urteak da-roatzate Barbara Taylor 39 urteko astrabuduarra eta Luis Amallobieta 42 urteko leioaztarra. Egindako azken erronkan, Anton Cotter taldekidea, Melquiades Verduras eta Javi Sánchez Getxo Arrauneko kideak eta beste bost kirolari ere izan ziren. Hamarrek munduko errekor berria ezarri zuten, 24 ordukoa, 30 urtez gorako eta hiru eta hamar pertsona bitarteko talde mistoan.

Zertan datza ergometroa?

Barbara Taylor: Aspaldi, ergometroa erabiltzen zuten arraunlariek neguan entrenatzeko, ura izoztuta zegoelako. Arraunaren mugimendu berdinak dauzka; erabateko ariketa da, ia muskulu denak erabiltzen dira. Onura oso positiboak ekar ditzake.

Zer da ENZ?

Luis Amallobieta: Barbararen senarra, Anton Cotter, Zeelanda Berrikoa da; han, arraunean zebilen, eta hemen, hau dena hasi zuen. Beragatik hasi nintzen ni kirol horretan. Kirolen bat egin gura genuen, baina umeakaz

bateragarria izango zena. Umeak izanda, gatza da arrastian arraun-klubera entrenatzen joatea. Hala, ergometroa-gaz hasi ginen eta kluba sortu genuen Getxon: Euskadi - New Zealand (ENZ).

“Azken orduan, neke-neke eginda geunden, baina jendeak bizkortu gintuen”

Joan den urriaren 29an ondu zuten munduko errekorra, ergometroan.

B.T: Bai, taldekako 24 ordukoa, talde misto eta *astuna* izanda. Marka 30 eta 39 urte bitartekoen mailakoa da, baina gehienok 40 urte pasatxo geneuzkan. Nagusiagook beheko kategorietan egin dezakegu. Alderantziz ezin da, gazteek ahalmen gehiago dute eta.

Getxo Kirol Portuan 369.424 metro bete zenituzten; zenbatean hobetu zuten aurreko marka?

L.A.: Ia ehun kilometroan. Aurreko marka, 272.000 metro, Zeelanda Berriko hiru pertsonen egin zuten, eta hori miragarria da. Guk asko igo genuen, baina hamar ginen; marka nahiko altu utzi gura genuen, luze iraun dezan.

Ekimenak elkartasun-asmoa zeukan.

L.A.: Proiektua egitea erabaki genuenean, hiruzpalau ginen. Alacante-ko ezagunen bidez, bertako kide batzuk lortu genituen. Ondoren, *Melqui* eta Javi deitu genituen. Elkartasunez, adostu genuen Begisare elkarte la-guntzea; erretinako gaixotasuna dutenen alde egiten dute behar.

Zelan jasan zenituzten 24 orduak?

B.T: Lehenengo hamar orduetan minutu biko txandak egin genituen, bakoitzak atsedean hartzeko 18 minutu izan zitzaizkion, baina, nekea nabaritu genuen. Gaua bikoteka egin genuen, bi orduko txandetan; bikotekideen artean 20 minutuero aldatzen ginen, besteek atsedena hartzen zuten artean. Oso astiro ibili ginen, gogorra izan zen. Goizean bueltatu ginen minutu biko errutina-ara eta, azken orduan, minutuero aldatu ginen, lehertu arte tiratzeko. Neka-neka eginda geunden, baina, jendeak adoretzeak eta ordu bat bakarrik gertzeak bizkortu gintuen.

I.A.: Gauean baten batek oso-oso txar-to pasatu zuen, negarrez amaitzera arte. Hori ez zen ikusi, baina, bakardadeak ia-ia hautsi zuen psikologikoki.

B.T: Polita izan zen ekimena eta taldea; nik errepikatuko nuke. ◀

Aldagelatik



ANA MASA PEREIRO
Kirolzale amorratua

Errugbi barneratzailea eta berdintasuna

Pasa den abuztuan ospatu zen Gasteizen Errugbi Inklusiboaren Nazioarteko Txapelketa (IMART). Errugbi inklusiboa, edota Mixed Abilities Rugby, aniztasun funtzionala duten jokalarien inklusioa sustatzeko sortutako errugbi modalitatea da. Gaztedi talde arabarrak izugarritzko integrazio proiektua garatu du azken urteetan, eta Getxon ere badago talde barneratzailea.

Errugbi inklusiboan emakumeek eta gizonek elkarrekin dihardute estatu mailan, abantailak baino ez dakartza. Errugbiaren balio tradizionalaz gain, modalitate inklusiboak partaidetza, integrazioa eta genero parekidetasuna ere sustatzen ditu. Jokalari eta entrenatzaileek lankidetzaren garrantzia ikasten dute, baita aniztasunaren balioa ere.

Hala ere, IMART torneo gizonetzkoentzat baino ez zen antolatuta. Nahiz eta euskal taldeek antolatzaileei neskek parte hartu ahal izatea eskatu, mistoa izateko aukera programa ofizialetik at utzi zuten. Hori dela eta, Getxoko jokalariek ez parte hartzea erabaki zuten. Torneo ofizialean jokatzera uko egin zioten taldeek lagunarteko partida mistoak antolatu zituzten erakustaldi gisa, baina balio ofizialik gabe.

Kontraesan itzela da, barnerketa defendatzen duen kirol modalitate honek emakumeak nazioarteko torneotik kanpo uztea. Benetan pena da berdintasuna aldarrikatzeko aukera ezin hobe hau alferrik galdu izana. Torneo guztiz inklusiboa izan balitz, taldeen parte-hartzea askoz ere handiagoa izango litzateke, baita klubetan eta gizartean jasotako ondorio positiboak ere.

Integrazioa eta parekidetasunaren aldeko borrokan, denok batera jokatu behar dugu. Elkartasuna inoiz baino garrantzitsua goa da gizartearen alderdi ahaztuak defendatzerakoan. ◀


hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa




SARIA

Getxoko Kultur Etxearen ekimenez, Manga Azokarako sarrerak zozkatuko ditugu

Azaroko azken aste-akabuko Manga Azokarako sarrera bikoitza lortu gura baduzu, azaroaren 17a (barikua) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona:
administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Azaroko saria
Udagoien koloretako bufanda eta txanoa



HIRUKAzale bati esker, sari hori zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean. Zozketan parte hartzeko, bidali azaroaren 30a (eguna) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona:
administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko. Bestelako erabilerak erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

	6		1	8				
	7						3	
	3					4		
							1	3
		5		3				
		7	2		9	5		
			4				9	
2	5			9				
	4	1		7		2		

Soluzioa

8	9	7	9	8	1	7	6	
8	7	1	8	6	9	8	9	7
9	6	8	7	1	7	9	8	7
7	8	9	6	9	7	7	1	8
7	8	9	1	8	8	9	6	7
8	1	6	7	7	9	8	7	9
1	9	7	9	7	7	6	8	8
9	8	8	7	9	6	7	7	1
6	7	7	8	8	1	7	9	9

+ Guardiako farmaziak, hilaren 9tik 15era

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Eguenean eta eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00.

IRUSTA. Angxane bidea, 1. 946 680 153. Domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Erandio

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

BERASATEGUI. Tartanga, 5. ALTZAGA. 944 671 429. Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Astegunetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; eta domekako 22:00etatik asteleheneko 09:00ak arte.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

GARDE. Iparbide, 7. ALGORTA. 944 305 052. Domekan, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00; domekan, 09:00-13:30.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO.

944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide kalea, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Zapatuan, 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484. Eguaztenean, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Domekan, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artatza kalea, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea kalea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz; zapatuan, 09:00-13:45.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00.

Sopela

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00; astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ERAZO. Loiola San Andrés, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00; martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00.

Galdeketetan hamarretik batek eman du botoa

TESTUA: IKER RINCON MORENO

Botoen % 97,18 baiezkoak izan ziren. 13.613 uribekostarrek euren iritzia eman zuten erabakitze-eskubidearen edo euskal Estatu burujabe baten gainean, Gure Esku Dago herri-plataformak egindako herri-galdeketetan, joan den domekan, azaroaren 5ean. Bizkaiko eta Gipuzkoako 13 udalerritan egin ziren kontsultak; batez beste, herritarren %13,07ak parte hartu zuten. Uribe Kostan, Berangok bakarrik gainditu du batezbestekoa: %16,18, 966 boto. Getxon, 8.083 boto-paper (%11,86) sartu zituzten hautetsontzietan; Erandion, 2.068 (%10,02); Leioan, 2.496 (%9,44).

Berango

Nahi duzu euskal herritarrok gure etorkizun politikoa gure kabuz eta aske erabakitzea?

% 16,18ko parte-hartzea
5.970 herritar deituak
966 emandako botoak

	BOTOAK	%
Baiezkoak	939	97,20
Ezezkoak	18	1,86
Zuriak	7	0,72
Baliobakoak	2	0,21



Getxo

Nahi duzu euskal herritarrok gure etorkizun politikoa gure kabuz eta aske erabakitzea?

% 11,86ko parte-hartzea
68.136 herritar deituak
8.083 emandako botoak

	BOTOAK	%
Baiezkoak	7.950	98,35
Ezezkoak	88	1,09
Zuriak	39	0,48
Baliobakoak	6	0,07



Joan den maiatzaren 7ko herri-galdeketa 5.007 botoak kontutan hartuta, 18.620 herritarrek parte hartu dute Uribe Kosta eskualde osoan Gure Esku Dagok (GED) antolatutako galdeketa. Denera, azkenengo datu horiek batuta, 177.000 herritarrek baino gehiagok parte hartu dute Euskal Herri osoan.

Euria protagonista izan zen egunean, askotariko pertsonak hurreratu ziren domekan GEDk Bizkaiko eta Gipuzkoako hamahiru herritan antolatutako hautesleketara, euren iritzia ematera. 16 urtetik gorako 160.000 pertsonak izan zuten aukera botoa emateko, eta horietatik denetatik 21.028k botoa eman zuten. Hala ere, parte-hartzeari dagokionez, alde handiak egon dira hamahiru herri horien artean: batzuek emaitza altuak izan zituzten, % 50 ingurukoak, berbarako Areatzak (% 45,35), Beizamak (% 44,36), Elantxobek (% 53,26), Ibarrangeluk (% 57,74), Mundakak (%41,63) eta Otxandiok (% 46,98); beste batzuek, oster, % 10aren bueltakoak. Hori bera izan zen Uribe Kostako lau herrien egoera: batez beste, bertoko herritarren %11,23k parte hartu zuen kontsultan. Hamahiru herrietako batezbestekoa % 13,07koa izan zen; eskualdean, hori Berangok bakarrik gainditu zuen: %16,18, 966 boto. Getxon, 8.083 boto-paper (%11,86) zenbatu ziren hautetsontzietan; Erandion, 2.068 (%10,02); eta, azkenik, Leioan, 2.496 (%9,44). Emaitzei begira, herri guztietako parte-hartzaile denen % 95,22 erabakitze-

ko eskubidearen eta euskal Estatu independentearen alde agertu ziren; oster, eskualdeko lau herrietako botoen % 97,18 izan zen baiezkoa.

Getxo, hiriburuetara begirako atea

Domekan galdeketa egin zuten udalerri denen artean, Getxo izan zen esanguratsuen: biztanle kopuruaren aldetik, orain arte erabakitzeko eskubidearen aldeko kontsulta egin den herririk handiena izan delako. Leioa eta Erandio ere multzo horretan koka dai-

GED: «Galdeketa baino gehiago izan dira; jauzi handi bat eman dugu, eta, horri esker, gero eta gertuago gaude hiriburuetatik»

tezke. Dena den, GED pozik agertu da herri horietan denetan «egindako lanagaz». Gainera, domekakoa «galdeketa batzuk baino gehiago» izan zela adierazi du GEDren bozeramaile Zelai Nikolasek: «jauzi handi bat eman dugu, eta, salto horri esker, gero eta gertuago gaude hiriburuetatik». Modu berean, gogoratu duenez, aurrera begira GEDk erronka nagusi bi ditu: batetik, erabakitzeko eskubidea edukiz betetzea, Herriarren Itunagaz; bestetik, erabakitzeko eskubidearen aldeko konplizitateak josten jarraitzea. «Bata

zein bestea, ezinbestekoak dira herri honen etorkizuna erabakitzeko; eta, beraz, batari zein besteari erantzungo dio azaroaren 25eko Bazkideen Ezohiko Batzarrean aurkeztuko den plangintza berriak», iragarri du Nikolasek.

Sufragistei eta Kataluniari gorazarre

Emakumeak izan ziren lehenengoak botoa ematen herri denetan. Modu horretan omendu gura izan zituzten Hego Euskal Herrian lehenengoz botoa emateko eskubidea izan zuten andreak; izan ere, Espainian, II. Errepublikaren garaian, 1933ko azaroaren 5ean bozkatu zuten lehen aldiz emakumeek. Horien ostean eman zuten botoa hamahiru mila lagun pasatxok. Bestalde, Kataluniako egoera politikoa ere akorduan izan zuten. Kataluniako hautetsontzi bana egon zen herri bakoitzean (urriaren 1eko erreferendumeak). Halaber, GEDren izenean Nikolasek eguneko «arrakasta» Kataluniari eskaini zion: «Katalunian erabakitzeko eskubidearen eta demokraziaren alde lanean ari direnei, bereziki, Espainiako Estatuaren jazarpen zuzena eta bidegabekeria jasaten ari direnei, espetxean dauden Jordi Sanchez, Jordi Cuixart eta zortzi kontseilariei, Kataluniako erakundeei, duintasunez behin eta berriro kalera ateratzen ari diren herritarrei, eta XXI. mendeko demokrazia zer den erakusten ari den herri oso bati. Gure errespetua, babesa eta maitasuna duzue. Gu beti Kataluniarekin». ◀



Erandio

Nahi duzu euskal herritarrok gure etorkizun politikoa gure kabuz eta aske erabakitzea?

% 10,02ko parte-hartzea
20.630 herritar deituak
2.068 emandako botoak

	BOTOAK	%
Baiezkoak	2.036	98,45
Ezezkoak	22	1,06
Zuriak	8	0,39
Baliobakoak	2	0,10



Leioa

Nahi al duzu Euskal Herri burujabe bateko herritarra izan?


% 9,44ko parte-hartzea
26.431 herritar deituak
2.496 emandako botoak

	BOTOAK	%
Baiezkoak	2.305	92,38
Ezezkoak	154	6,17
Zuriak	26	1,04
Baliobakoak	0	0,40



Erandio, 70. hamarkada

Lehen/Orain



Uribitakora



TESTUA

Araitz Lasa Seña

DOINUA

Menditarra naiz eta gogoan

ARGAZKIA

Hodei Torres

Heldulekuak

Eserlekuek hainbeste forma
eta kolore dituzte:
izan daitezke familia, lagun,
ideia zein buruhauste...
Denok daukagu uneren baten
haien beharra, ez uste...
Heldulekuek indartu eta
eutsi egiten gaituzte.

Etengabeko berreraikuntzak
oinarri du haurtzaroa.
Nahiz (e)ta oraina ez den izango
sekula ere lehengoa,
denbora luzez ereindakoa
apurka indartzen doa:
Norbera ere izan dadila
heltzeko leku sendoa.

Gure inguruak eskaintzen digu
guk uste baino gehiago;
eta, ordea, laguntza eza
izaten dugu nahiago..
Baina horrela egiten gara
heldu ahala ahulago.
Zertan eraiki heldulekuak
heltzeko zer ez badago?

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua